


ALCATEL 535

Telefonoaren
erabilera-gida.



Sarrera.....

Alcatelek eskerrak ematen dizkizu telefono hau erosteagatik.

Trinkoa eta dotorea da eta look metaliztua du; zure telefonoak 4096 koloreko pantaila handia du, baita erraz eta intuizioz erabiltzeko erabiltzaile-interfazea ere.

Adierazi koloreen bidez

MMS teknologia berriari esker, irudiak eta soinuak bidali ahal izango dituzu mezu laburretan. Zure mezuek eguneko zure umorea isla dezakete, integratuta dagoen edo deskargatzeko prest dagoen multimedia-edukiari esker.

Zurea bakarrik

Eman iezaiozu ukitu pertsonala zure telefonoari. Aukeratu kolore bat edo itxura bat pantaila-hondoen sortatik, edo aukeratu multimedia-eduki aberatseko horma-paperetako edo doinuetako bat. Botoi bat behin bakarrik sakatuta, erabilgarri dituzun giroetako bat aukeratu ahal izango duzu.

Irudiak eta soinuak nahi bezala alda ditzakezu.

Zure jolaslaguna

Presta zaitez dibertsio-une biziak bizitzeko. Zure nabigatzailearekin eta ergonomia berriari esker, bi eskuak erabilita jolastu ahal izango duzu, kontsolarekin bideo-jokoetan bezala.

Zure kamera (One Touch 735 modeloan bakarrik)

Atera unerik onenetako argazkiak mugikorrean integratutako kamera-funtzioarekin, eta trukatu lagunekin. Erabili zooma eta soinuak grabatzeko funtzioa argazkiak ateratzen dituzunean, edo jarri argazkiari marko bat edo zigilu txiki dibertigarriak: benetan erraza da!

Aurkibidea.....	0
Sarrera.....	1
Erabiltzeko oharrak.....	5
Informazio orokorra.....	8
1. Zure telefonoa	9
1.1 Teklak	10
1.2 Hasierako pantailako ikonoak.....	11
2. Martxan jartzea	13
2.1 Erabiltzeko moduan jartzea.....	13
2.2 Telefonoa piztea	15
2.3 Telefonoa itzaltzea	15
3. Deiak.....	16
3.1 Deiak egitea	16
3.2 Ahots-postontzira deitzea	17
3.3 Deiak jasotzea	17
3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean	18
3.5 Konferentzia.....	19
3.6 2. linea.....	19
4. Deien memoria.....	20
4.1 Deien memoria kontsultatzea eta berriro deitzea.....	20
4.2 Erabilgarri dauden aukerak.....	20
5. Menua	21
6. Direktorioa.....	23
6.1 Direktorioa kontsultatzea	23
6.2 Erregistroak sortzea.....	24
6.3 Erabilgarri dauden aukerak.....	25
6.4 Direktorio berriak sortzea.....	26
6.5 Erregistroak sailkatzea.....	26
6.6 Ahotsa ezagutzeko funtzioa erabiltzea	26

6.7	Txirrin bat direktorio batekin lotzea	27
6.8	Irudi bat edo animazio bat erregistro batekin lotzea	27
7.	Mezuak	28
7.1	Mezuetara sartzea	28
7.2	Mezuak irakurtzea	29
7.3	Mezu laburrak (SMSak) idaztea eta bidaltzea	32
7.4	Multimedia-mezuak (MMS) idaztea eta bidaltzea	34
7.5	Testua idazteko modua.....	37
7.6	Mezuen doikuntzak	38
8.	Pertsonalizatzeko aukerak	41
8.1	Soinuak.....	41
8.2	Inguruneak.....	42
8.3	Deiak jasotzeko/egiteko egoerako pantaila	43
8.4	Koloreak	44
8.5	Konpositorea	44
8.6	Pizteko/itzaltzeko pantailak	45
8.7	Energia aurrezte	45
8.8	Zooma.....	45
8.9	Teklak pertsonalizatzea	46
8.10	Ahots-komandoak	46
8.11	Nire zenbakiak	47
8.12	Doikuntzak.....	48
9.	Tresnak	56
9.1	Agenda	56
9.2	Alarmak.....	59
9.3	Bihurgailua.....	59
9.4	Kalkulagailua.....	60
9.5	Erlojua	60
9.6	Memoria	61
9.7	Ahots-gogorarazlea	61
9.8	Infragorriak.....	62
9.9	Alarmen zerrenda.....	62

10. Gertaerak	63
11. WAP/GPRS zerbitzuak.....	64
11.1 WAP zerbitzuetara sartzea	64
11.2 Erabilgarri dauden aukerak.....	65
11.3 Sarbidea programatzea.....	65
11.4 Zuzeneko sarbidea / Profil-sarbidea.....	67
11.5 GPRS funtzioa.....	68
12. Multimedia-bilduma	69
12.1 Bildumaren menua.....	69
12.2 Nire irudiak.....	69
12.3 Nire soinuak	70
12.4 Irudien eta soinuen kudeaketa.....	70
12.5 Formatuak eta euskarriak.....	71
13. Kamera	72
13.1 Irudia hartzea.....	72
13.2 Doikuntzak.....	77
13.3 Irudia hartu ondoren dauden aukerak.....	77
14. Irudiak aldatzea.....	78
15. Jokoak.....	80
15.1 Jokoen menua	80
15.2 Nabigazioa.....	80
15.3 Joko bat deskargatzea	81
16. Zure mugikorreko zerbitzu aurreratuak.....	84
16.1 Alcatelen “My One Touch” zerbitzuak.....	84
16.2 Alcatelen PCrako programen paketea.....	84
17. Karaktereen eta ikurren taula.....	86
18. Bermea	87
19. Osagarriak	89
20. Arazoak eta irtenbideak.....	91

Erabiltzeko oharrak

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule izango.

• **SEGURTASUNA IBILGAILUAN:**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa erabiltzea debekatzen zaio gidariari. Telefonoak erradiazioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean, etab. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- konektatu telefonoa kanpoko antena bati edo, bestela, itzali; antenaren kokalekua hautatzerakoan, kontuan izan antenak ez duela egon behar gorputzetik hurbil denbora guztian, salbu tartean bereizteko plaka metaliko bat badago (adibidez, ibilgailuaren sabaia),
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo kontzesionarioarekin, ibilgailu barruko tresnak behar bezala babesturik daudela egiaztatzeko.

• **ERABILTZEKO KONDIZIOAK:**

Itzali telefonoa hegazkinean. Arau hau betetzen ez baduzu, baliteke prozesu judizialei aurre egin behar izatea. Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Piztuta dagoenean, ez ipini telefonoa aparatu medikoetatik hurbil geratzen den jantzetan (taupada-markagailuak, belarriko protesia, insulina-ponpa...). Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrarian, baizik beste aldekoan.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Arauak errespetatu erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan. Haurrek ez dezatela telefonoa erabili zaintzarik gabe.

Ez saiatu telefonoa zuk zeuk irekitzen edo konpontzen.

Zure telefonoarekin bateragarriak diren Alcatelen bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili behar dituzu (ikus 89. orrialdea). Beste kasuetan, Alcatelek ez du ardurarik hartzen bere gain. Ez utzi telefonoa ingurune kaltegarrietan (hezetasuna, euria, likidoak sartzeko arriskua, hautsa, itsas haizea, etab.). Fabrikatzaileak -10°C eta +40°C bitarteko tenperatura gomendatzen du. 55 °C-tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da eta ez dakar arrisku berezirik.

• **BATERIA:**

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek eduki behar dira kontuan: ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago), ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik + eta – poloak kontaktuan jarrita, ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan. Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dagoen legearen arabera birziklatuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako eta ez erabili inoiz hondatutako bateriarik.

• **KARGAGAILUAK:**

Saretik elikatzen diren kargagailuak 0-40 °C bitartean erabiltzeko diseinatu daude. Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauak betetzen ditu eta erabilera horretarako bakarrik diseinatu dago.

• **UHN ELEKTROMAGNETIKOAK:**

Telefono mugikorren modelo guztiek nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) arteztarauarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea –batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena– eskakizun edo arteztarau horien funtsezko betebeharra da.

IRRATI-UHINEI BURUZKO NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU TELEFONO MUGIKOR HONEK.

Zure telefono mugikorra irrati-uhinen igorlea eta hartzailea da. Nazioarteko eskakizunek (ICNIRP) (1) eta Europako Batasuneko Kontseiluak (1999/519/EE gomendioa) (2) gomendatutako irrati-maiztasunen (IM) mugak errespetatuz diseinatu eta fabrikatu dago. Muga horiek eskakizun-multzoa osatzen dute eta publikoarentzat baimendutako irrati-maiztasunaren mailak zehazten dituzte. Muga horiek aditu independenteek ezarri dituzte, ebaluazio zientifiko erregulatu eta zehatzetan oinarrituz. Segurtasun-tarte handia hartzen duten kontuan, guztion segurtasuna bermatu ahal izateko, edozein dela ere gure adina edo osasun-egoera.

- (1) ICNIRP eskakizunak herrialde hauetan aplikatzen dira: Erdialdeko Amerika (Mexiko izan ezik), Hegoaldeko eta Iparraldeko Afrika eta Asia-Pazifikoa (Taiwan, Korea eta Australia izan ezik).
- (2) Europako gomendioa (1999/519/EE) herrialde hauetan aplikatzen da: Europa, Ekialdeko Europa, Israel.

Telefono mugikorren arauak “SAR” (Specific Absorption Rate = Absortzio Espezifikoaren Tasa) izeneko neurri-unitatea definitzen du. Europako Batasuneko Kontseiluak SAR tasarentzat gomendatutako muga 2 W/kg da, giza ehunaren 10 gramoko batez beste. Probak potentzia-mailarik altuena igorritz egin dira, maiztasun-banda guztietan. SAR tasa potentzia-mailarik altuenean ebaluatzen den arren, telefono mugikorraren SAR tasa erreala, normalean, probetan lortutako gehienezko balioen azpitik dago. Beraz, telefono mugikor hau sarerako konexioa ziurtatzeko beharrezkoa den potentzian soilik erabiltzeko diseinatuta dago. Oro har, oinarri-estazioko antenatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta potentzia-maila baxuagoa izango du telefono mugikorrak. Telefono mugikor modelo honen SAR tasaren gehienezko balioa belarriaren ondorako eta arauaren arabera $0,57 \text{ W/kg}$ da. Nahiz eta SAR mailak telefono batetik bestera edo erabiltzeko modu batetik bestera aldatu, maila guztiek irrati-maiztasunei buruz indarrean dauden nazioarteko eskakizunak eta Europako gomendioa betetzen dituzte. Zure mugikorrak antena integratua du. Komunikazioan funtzionamendua optimizatzeko, ez ukitu edo hondatu.

Munduko Osasun Erakundearen (MOE) iritziz, “egungo zientzia-jakintzak ez du justifikatzen telefono mugikorrak erabiltzeko neurri bereziak hartzea. Kezka izanez gero, bakoitzak erabaki dezake norberak edo bere seme-alabek irrati-maiztasunen eraginpean denbora gutxiago egotea, komunikazioen iraupena murriztuz edo esku libreko aukera (edo esku libreko kit eramangarria) erabiliz. Hala, telefonoa burutik eta gorputzetik urrunago dago” (Memo 193. zk). MOEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Informazio orokorra

- **Interneteko helbidea:** www.alcatel.es – **Wap helbidea:** wap.alcatel.com
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus "Alcatel-en zerbitzuak" liburuxka (deia herriko dei gisa fakturatuko da, zure herrialdean indarrean dauden tarifen arabera).


Zure telefonoa irrati-uhinen igorlea eta hartzailea da, eta GSM sareetan, 900 MHz eta 1800 MHz bandetan funtzionatzen du.

Zure telefonoak 1999/5/EE (R&TTE) arteztaraua betetzen duela eta osagarriek indarrean dauden Europako Erkidego arteztarauak betetzen dituztela ziurtatzen du  markak. Zure telefonoaren Adostasun Deklarazioaren testu osoa helbide honetan irakur dezakezu: www.alcatel.es.

Lapurretaren aurkako babesa

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, zenbaki hori sartzea aholkatzen da  teklak sakatuta, eta leku seguruan gordetzea; izan ere, polizia edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ez eta SIM txartel berria jarrita ere.

Zure telefonoa.....



(1) Telefono-modeloaren arabera.

(2) One Touch 735 modeloan bakarrik.

I.1 Teklak

 Jokoetara ⁽¹⁾ Zerbitzuetara ⁽¹⁾ Tekla pertsonaletara ⁽¹⁾ sartzeko tekla/ekintza-tekla

 Ezkerreko funtzio-tekla: pantailaren goiko aldean kokatutako aukera berrestea

 Eskuineko funtzio-tekla: pantailaren goiko aldean kokatutako aukera berrestea
Kamerarako sarbidea ⁽²⁾

 **Telefonoa piztea/itzaltzea**
Hasierako pantailara itzultzea (Luze sakatu)

 Edizioan ezabatzea (labur sakatu)
Aurreko pantailara itzuli (labur sakatu).

 **MENUra** sarbidea
Aukera bat berrestea



Nabigatzailea:

Dei batean soinuaren bolumena doitzea

Aukera bat hautatzeko mugitzea
Direktorioan sartzea (beherantz mugitzeko tekla sakatu).

Mezu laburretara sartzea (gorantz mugitzeko tekla sakatu).



Hartzea / Esekitzea (labur sakatu)
Deien memoria kontsultatzea (BIS) (labur sakatu).

Ahotsa ezagutzeko funtzioa erabiltzea (luze sakatu)



Ahots-postontzia kontsultatzea (luze sakatu).



Bibragailua aktibatzea / desaktibatzea (luze sakatu).

Editatzeko moduan, ikurren taulan sartzeko aukera.



Teklatua blokeatzea/desblokeatzea.
Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: maiuskulak, minuskulak, zifrak.
- Luze sakatuta: Modu arruntetik modu prediktibora aldatzea



Nabigazio-teklak hobeto funtzionatzen du, behartu gabe erpuruarekin sakatzen baduzu.

(1) Telefono-modeloaren arabera.

(2) One Touch 735 modeloan bakarrik.

1.2 Hasierako pantailako ikonoak ⁽¹⁾



Bateriaren karga-maila



Bibragailua modua: telefonoak dar-dar egiten du, baina ez du txirrinik edo soinurik ateratzen (ikus 42. orrialdea).



Isilik modua: zure telefonoak ez du txirrinik edo soinurik ateratzen eta ez du dar-dar egiten, alarmen kasuan izan ezik (ikus 42. orrialdea).



Kontsultatu beharreko informazioa: Zure ahots-postontzia, jasotako eta erantzun gabeko deiak, irakurri gabeko mezu laburrak eta WAP alarmak ⁽²⁾ kontsulta ditzakezu.



Mezu laburren zerrenda beteta (SMS): zure telefonoak ezin du SMS mezu gehiago jaso. Mezuen zerrendara joan behar duzu, gutxienez mezu bat ezabatzeko (ikus 30. eta 31. orrialdeak).



Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta: deiak desbideratu egingo dira (ikus 48. orrialdea).



Minutu-kontagailua edo iratzargailua programatuta (ikus 59. orrialdea).



Estaldura-adierazlea.



Lehentasunezko tarifa-eremuak ⁽²⁾.

⁽¹⁾ Gidaliburu honetako ikonoak eta irudiak lagungarriak dira.

⁽²⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.



Teklatua blokeatuta.



Roaming-a, ordaintzen duzun herrialdean.



Infragorriak: infragorrien lotura aktibatuta.



Alcatelen USB datu-kable bidezko lotura



2. linea ⁽¹⁾: aukeratutako linea zein den adierazten du.



GPRS: GPRS ingurunea aktibatuta



MMSa deskargatzen / hartzen ari da.



MMSa bidaltzen ari da.


⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

2 Martxan jartzea

2.1 Erabiltzeko moduan jartzea


SIM txartela sartzea eta ateratzea ⁽¹⁾

Telefonoa erabili ahal izateko, SIM txartela sartu behar duzu.




Jarri SIM txartela txipa behera begira duela eta sartu bere lekuan. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela.

Bateria sartzea eta ateratzea




Sartu eta bultzatu bateria eta, ondoren, itxi telefonoaren tapa.



Askatu bateria eta atera.

(1) Egiaztatu zure operadorearekin zure SIM txartela 3 voltekoa dela. 5 voltekoko txartel zaharrak ezin dira erabili. Jarri harremanetan zure operadorearekin.

Bateria kargatzea




Konektatu kargagailua

- Seinale akustiko labur batek adierazten du kargatzen hasi dela.
- Animazioa zertxobait atzera daiteke edo txistu-hotsa atera dezake bateria oso deskargatuta badago.
- Ez behartu telefonoaren hartunea.
- Itxaron 2 minutuz bateriaren ikonoak karga-maila zehatza adierazi arte.
- Bateria instalatuta ez badago, kargagailua konektatu aurretik instalatu behar duzu.
- Korrante-hartuneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikoak ez erabiltzea gomendatzen da).



Telefonoa lehenengo aldiz erabiltzean, kargatu bateria erabat (3 orduz gutxi gorabehera).ALCATELen kargagailuak bakarrik erabili.

Erabiltzeko oharrak



Ez heldu telefono mugikorrari goiko aldetik

Zure mugikorrak antena integratua du.

Komunikazioan funtzionamendua optimizatzeko, ez ukitu edo hondatu.

Seinalea hobetzeko eta funtzionamenduko kalitate egokiena izateko, ez heldu telefono mugikorrari goiko aldetik.

2.2 Telefonoa piztea

Luze sakatu **C** tekla telefonoa piztu arte; behar izanez gero, tekleatu PIN kodea eta berretsi **OK** teklarekin. Hasierako pantaila bistaratuko da.



PIN kodea zein den ez badakizu edo ahaztu bazaizu, jarri harremanetan operadorearekin. Ez utzi inoiz PIN kodea telefonotik hurbil; eta txartela erabiltzen ez duzunean, gorde leku seguruan.

Sarearen bidez banatutako mezuak bistaratzen badira, erabili **OK** tekla mezu guztiak bistartzeko edo sakatu **C** tekla hasierako pantailara itzultzeko.

Telefonoa sarea bilatzen ari denean <<< - >>> ikurra agertzen da (??? - ??? ikurra agertzen da sareak SIM txartela onartzen ez duenean; kasu horretan, jarri harremanetan operadorearekin).

2.3 Telefonoa itzaltzea

Hasierako pantailan, sakatu **C** tekla (luze sakatu).

3 Deiak

3.1 Deiak egitea

Markatu telefono-zenbakia eta sakatu  tekla dei bat egiteko. Esekitzeko, sakatu berriro tekla bera. Akatsik egonez gero, erabili  tekla digituak ezabatzeko.



“+” edo “P” (etenaldia) idazteko,  tekla luze sakatu (karaktere hauek agertuko dira: 0, +, P, •).

Larrialdi-dei bat egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu **112** eta sakatu  (edo zure operadoreak emandako beste edozein zenbaki), larrialdi-dei bat egiteko, baita SIM txartelik gabe, PIN kodea sartu gabe eta teklatura desblokeatu gabe ere.

Dei bat egitea aurrezenbaki bat erabilita

“**Aurrezenbakietara**” sartzeko, luze sakatu  tekla + ikurra bistaratu arte. Aurrezenbakietara sartzeko, erabili ◀ ▶ tekla.

- Nazioarteko dei bat egiteko  , hautatu eta berretsi herrialdearen edo zonaren zenbaki adierazlea, osatu solaskidearen zenbakiarekin eta egin deia.
- Erabili nahi duzun aurrezenbakia zein den badakizu, joan  ikonora eta sartu zuzenean aurrezenbakia eta solaskidearen zenbakia.
- Enpresa batzuetan, zenbakiak digitu berberekin hasten dira. “**Aurrezenbakia**” funtzioari esker  , zati komuna memorizatu eta aldatzen dena bakarrik idatz dezakezu. Zuk sortu behar dituzu aurrezenbakiak.

Automatikoki berriz deitzea

Funtzio hau aktibatuta badago eta sareak inplementatu badu (ikus 50. orrialdea), automatikoki dei diezaiokezu berriro solaskideari, harekin hitz egitea lortzen ez baduzu.

3.2 Ahots-postontzira deitzea ⁽¹⁾

Deirik ez galtzeko, sareak ahots-postontziaren zerbitzua du. Zerbitzu honek erantzungailu gisa funtzionatzen du, eta edozein unetan kontsulta dezakezu postontzi hori. Ahots-postontzira sartzeko, luze sakatu  tekla eta egin deia **OK** tekla sakatuta.

Zure postontzira sartzeko zenbakirik ez baduzu, sartu operadoreak adierazitako zenbakia. Zenbaki hori aldatzeko, erabili **"Nire zenbakiak"** aukera (ikus 47. orrialdea).

 Ahots-postontzia atzerrian erabiltzeko, jarri harremanetan operadorearekin bidaia egin aurretik.

3.3 Deiak jasotzea

Dei bat jasotzen duzunean, sakatu  tekla, hitz egin eta eseki tekla berbera erabilia.

Dei bat jasotzean, zure telefonoaren txirrina geroz eta ozenago entzuten da.  ikonoa bistaratzen bada, horrek esan nahi du bibragailua aktibatuta dagoela: txirrinak ez du soinurik aterako.  ikonoa bistaratzen bada, bibragailua eta txirrina ez daude aktibatuta.

 Deia egin duenaren zenbakia sareak transmititzen badu bistaratzen da (galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez).

Txirrina moztea

Sakatu  tekla edo joan ezkerreko ikonora nabigatzailea erabilia telefonoak jotzen duenean: oraindik erantzun diezaiokezu deiari  tekla sakatuta.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Dei bat ez onartzea

Sakatu bitan  tekla edo joan  ikonora deia ez onartzeko.

3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean

Erabil ditzakezun funtzioak

Dei batean, zure direktorioa, agenda, mezu laburrak eta abar erabili ditzakezu, komunikazioa moztu gabe, ◀▶ tekla erabilita.



Deia zain



Uneko deia



Esku libreko gailua

KONTUZ: urrutiratu telefonoa belarritik **“Esku libreko aukera”** aktibatuta duzunean; izan ere, bolumena anplifikatuta egonda, kalteak eragin ditzake entzumenean.



Direktorioa



Mezuak



Agenda



Zerbitzuak (1)




Ahots-gogorazlea
(grabatu uneko deia)



Ikus oharrak

Bolumena aldatzea

Dei batean, bolumena doi dezakezu, ◀▶ nabigatzailea erabilita.



Esku libreko ekipoa erabilita, telefonoaren atzeko aldeko bozgorailua automatikoki aktibatzen da; bozgorailu hori Hi-Fi mintz batez osatuta dago.

(1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Dei berri bat jasotzea

- **Deia zain (I)**

Hitz egiten ari zarela beste dei bat jasotzen baduzu, seinale akustiko baten bidez ohartaraziko dizu telefonoak. Deia har dezakezu,  tekla sakatuta.

Uneko deia zain geratuko da automatikoki eta solaskide batetik bestera aldatu ahal izango duzu ◀▶ eta OK tekla erabilia.

- **Bigarren deia egitea**

Hitz egiten ari zarela, beste solaskide bati dei diezaiokezu OK tekla sakatuta eta **“Markatu”** aukeratuta.

3.5 Konferentzia (I)

Zure telefonoak une berean zenbait pertsonarekin hitz egiteko aukera ematen du (gehienez 5 solaskide). Dei bikoitzean zaudenean: sakatu OK, aukeratu **“Konferentzia”**, eta, ondoren, berretsi OK teklarekin. Hirugarren deia jasotzen duzunean, hartu {} tekla sakatuta eta hitz egin solaskidearekin.

Hirugarren solaskidea konferentzian sartzeko, sakatu OK tekla, aukeratu **“Sartu konf.”** eta berretsi OK sakatuta. Uneko komunikazioa mozteko, sakatu {}.

Konferentzia amaitzeko, sakatu OK tekla eta aukeratu **“Amaitu konfer.”**.

3.6 2. linea (I)

Zure SIM txartelak bi telefono-zenbaki izan ditzake. **“Tresnak”** aukeran, aukeratu **“2. linea”** eta hautatu lehenetsitako linea; zure dei guztiak telefono-zenbaki hori erabilia egingo dira. Deiak bi lineetatik jaso ahal izango dituzu (ikus 54. orrialdea).

(I) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

4 Deien memoria

4.1 Deien memoria kontsultatzea eta berriro deitzea

Deien memorian sartzeko, sakatu  tekla hasierako pantailan. Lehenengo, nahi duzun ikonoa aukeratu behar duzu:



Irteerako deiak (Bis)



Erantzun gabeko deiak



Erantzundako deiak



Hartzailearen izenaren ezkerreko aldean bistaratutako ikonoek adierazten dute direktorioan gordetako telefono-zenbakia zein motatakoa den (etxea, bulegoa, mugikorra).

4.2 Erabilgarri dauden aukerak

Zenbaki bat memorian sartuta baduzu, sakatu **OK** tekla aukera hauek ikusteko:

- | | |
|-------------------------|---|
| Kontsultatu | • Kontsultatu deiaren xehetasunak (zenbakia, data, ordua, etab.). |
| Zenbakia gorde | • Gorde aukeratutako zenbakia direktorioetako batean. |
| Zenbakia ezabatu | • Ezabatu aukeratutako zenbakia. |
| Zerrenda hustu | • Ezabatu zerrenda osoa. |
| Itzuli | • Itzuli zenbakien zerrendara. |
| Irten | • Itzuli hasierako pantailara. |

5 Menua.....

- **DIREKTORIOA**
- **MEZUAK**
- **PERTSONALIZATZEKO AUKERAK**
 - Soinuak
 - Inguruneak
 - Deiak jasotzeko/egiteko egoerako pantaila
 - Koloreak
 - Konpositorea
 - Konposatu
 - Grabatu
 - Piztuta / Itzalita
 - Energia aurrezte
 - Zooma
 - Teklak
 - Tekla pertsonala
 - Teklatua
 - Ahots-komandoa
 - Menua bistaratzea
 - Nire zenbakiak
 - Nire zenbakia
 - Ahots-postontzia
- Doikuntzak
 - Zerbitzuak
 - Faktura
 - Kontrastea
 - Hizkuntzak
 - Hiztegia
 - Idazteko modua (1)
 - Teklatua blokeatuta
 - Esku libreko ekipo eram.
 - Ibilgailurako kita
 - WAP/GPRS
 - 2. linea (2)
 - Konfidentzialtasuna
 - Segurtasuna

(1) Hizkuntzaren arabera.

(2) Operadorearen arabera.

- **TRESNAK**

- Agenda
- Alarmak
- Bihurgailua
- Kalkulagailua
- Erlojua
- Memoria
- Ahots-gogorazlea
- Infragorriak
- Alarmen zerrenda

- **GERTAERAK**

- **ZERBITZUAK**

- WAP
- Zerbitzuak ⁽¹⁾
- My One Touch

- **JOKOAK**

- **MULTIMEDIA-ALBUMA**

- Nire irudiak
- Nire soinuak

- **KAMERA** ⁽²⁾

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

⁽²⁾ One Touch 735 modeloan bakarrik.

6 Zure telefonoa



6.1 Direktorioa kontsultatzea

Hasierako pantailatik direktoria sartzeko, sakatu  tekla beherantz edo sakatu **OK** tekla eta aukeratu menuko  ikonoa.

Zuk 4 direktorio dituzu:



SIM direktorioa:

SIM txartelaren edukia operadorearen arabera da. Izen bati ezin zaizkio zenbaki bat baino gehiago lotu.



Direktorio orokorra:

Sortutako erregistro guztiak ditu. SIM txartelaren erregistroak ez dira automatikoki sortzen direktorio orokorrean, baina kopia daitezke.



Direktorio pertsonala:

Direktorio honetan zure zenbaki pertsonalak sailka ditzakezu (familia, lagunak, etab.).



Direktorio profesionala:

Direktorio honetan zure zenbaki profesionalak sailka ditzakezu (enpresa, etab.).

Direktorio horiez gain, zure direktorioak ere sor ditzakezu (ikus 26. orrialdea).

Izenak lehen letraren arabera bilatzea

Solaskidearen izena haren izenaren lehen letra sakatuz bila dezakezu.



Testuak idazteko modu espezifikoak behar duten hizkuntzen kasuan, bilaketa **“Bilatu izena”** aukera erabilia egiten da.

Erregistroa kontsultatzea

Aukeratu izen bat zure direktorioan, berretsi **OK** teklarekin, aukeratu **“Kontsultatu”** eta berretsi.

Zure solaskideari deitzea

Izena aukeratu ondoren, sakatu **{}** tekla. Zure solaskideak zenbaki bat baino gehiago baditu, lehenengo zenbaki bat aukeratu behar duzu (etxea, mugikorra, bulegoa, etab.) **⬆** tekla sakatuta. Sakatu **{}** tekla deia egiteko.



Direktorioko eta agendako informazioak ordenagailu batekin truka daitezke, Alcatelen PC programen paketearekin (ikus 84. orrialdea).

6.2 Erregistro bat sortzea

Aukeratu erregistroa sortu nahi duzun direktorioa. Direktorioko izenen zerrendatik abiatuta, sakatu **OK** tekla, aukeratu **“Sortu erregistroa”** eta sakatu berriro **OK**

Edozein unetan, sartutako informazioa gorde dezakezu **OK** tekla sakatuta eta **“Gorde eta Atera”** aukeratuta. Hurrengo eremura pasatzeko, aukeratu **“Jarraitu”** edo erabili **⬆** nabigazio-tekla.

Ekipoko direktorioan kontaktu berri bat sortzean, gutxienez eremu hauetako bat bete behar duzu: identifikazioa, zenbakiak, helbide elektronikoa, helbidea, oharrak, Info. pertsonala 1...4. Eremu batetik bestera **⬆** tekla sakatuta pasa zaitezke.



Telefonoa atzerrian erabiltzen baduzu, gorde direktorioaren zenbakiak “+” nazioarteko formatua erabilia (ikus 16. orrialdea).

6.3 Erabilgarri dauden aukerak

Zure direktorioetako izenen zerrendetatik abiatuta, sar zaitetz aukera hauetara **OK** tekla sakatuta:

Kontsultatu	• Kontsultatu erregistro oso bat: izena, helbidea, helbide elektronikoa, etab.
Sortu	• Sortu erregistro bat (izena, zenbakiak, helbidea, helbide elektronikoa, etab.) nahi duzun direktorioan.
Idatzi	• Bidali SMS edo MMS bat kontaktu bati direktoriotik.
Aldatu	• Aldatu erregistroaren edukia
Lotuirudia	• Aukeratu argazki/irudi/animazio bat bilduman, erregistro bati lotzeko (ezin da SIM direktorioan egin hori).
Ezabatu	• Ezabatu hautatutako erregistroa.
Sailkapena	• Kopiatu direktorio bateko erregistroa beste direktorio batera.
Doinua	• Lotu doinu bat direktorio bati.
Sortu	• Sortu zure direktorioa.
Hustu	• Ezabatu direktorio bateko edukia (sortutako direktorioa bakarrik).
Ezabatu	• Direktorio hori, erregistro eta guzti, erabat desagertzen da.
Guztia kopi.->	• Kopiatu direktorio osoa SIM direktorioan edo telefonoan, memorian tokia egonez gero.
Ezagutu	• Grabatu ahotsa ezagutzeko funtzioarekin, SIM direktorioan izan ezik.
Transferitu	• Trukatu datuak infragorrien bidez (ikus 62. orrialdea).
Itzuli	• Itzuli direktorioko izenen zerrendara.
Irten	• Itzuli hasierako pantailara.

6.4 Direktorio berriak sortzea

Telefonoko direktorio batetik, sakatu **OK** tekla eta aukeratu **“Sortu dir.”**, berretsi **OK** teklarekin eta eman izen bat sortu berri duzun direktorioari. 13 direktorio berri sor ditzakezu.

Sortutako direktorioak bakarrik ezaba ditzakezu **“Ezabatu dir.”** aukerarekin.

6.5 Erregistroak sailkatzea

Telefonoko direktorio batean, sakatu **OK** tekla eta aukeratu **“Sailkatu erregistroa”**. Berretsi **OK** sakatuta, aukeratu helburu-direktorioa, sakatu **OK** tekla eta aukeratu **“Berretsi”**.

6.6 Ahotsa ezagutzeko funtzioa erabiltzea

Ahotsa ezagutzeko funtzioarekin, solaskidearen izena esanda dei diezaiokezu, direktorioetan sartu gabe.

Ahotsa ezagutzeko mezua grabatzea

Telefonoaren direktorioan, aukeratu erregistro bat eta berretsi **OK** teklarekin, aukeratu **“Ahotsa ezagutzea”** eta berretsi berriro. Hiru bip-motak adieraziko dizute noiz hasten den grabatzen, grabazioa gaizki egin dela edo ondo grabatu duela. Grabatu ondoren, ahotsa ezagutzeko mezua **“Entzun”**, **“Ordezkatu”** edo **“Ezabatu”** dezakezu.



Ahotsa ezagutzeko grabazioa duten erregistroek  ikonoa dute aldamenean. Ahotsa ezagutzeko funtzioa izan dezaketen izen-kopurua mugatua da. Funtzio hori direktorio guztietatik erabil daiteke, SIM txarteletik izan ezik.

Ahotsa ezagutzeko funtzioa erabiltzea

Hasierako pantailatik, ahotsa ezagutzeko funtzioa aktiba dezakezu  tekla sakatu (luze sakatu). Ondoren, segitu pantailan agertuko diren jarraibideei.

6.7 Txirrin bat direktorio batekin lotzea

Telefonoaren direktorioan, aukeratu erregistro bat, sakatu **OK** tekla eta aukeratu **“Dir. doinua”**.

Telefonoaren direktorio horretan erregistratutako solaskide baten deia jasotzen duzunean, direktorio horri lotutako doinua entzungo da.

6.8 Irudi bat edo animazio bat erregistro batekin lotzea

Telefonoaren direktorioan, aukeratu erregistro bat, sakatu **OK** tekla eta aukeratu **“Lotu irudia”**. Ondoren, irudi bat edo animazio bat erregistro bati lotu diezaiokezu.

Dei bat jasotzen duzunean, aukeratutako irudia edo animazioa pantailan bistaratzen da.

7 Mezuak



7.1 Mezuetara sartzea

Zure telefonotik, mezu laburrak (“**Testua/SMSa**”) eta “**Multimedia/MMS**” mezuak kontsulta, idatz, jaso eta bidal ditzakezu ⁽¹⁾. Multimedia-mezuetan, irudiak, argazkiak, animazioak, tonuak eta ahots-mezuak bidal ditzakezu beste mugikor bateragarrietara eta helbide elektronikoetara. “**MMS/VMS ahotsa**” funtzioa duzu. MMS sinplifikatu bat da eta ahots-gogorazleak mezu labur gisa bidaltzeko aukera ematen du.

“**Multimedia/MMS**” funtzioa bakarrik erabil daiteke:

- 1) zerbitzua zure hornitzaileak ematen badizu,
- 2) abonuan MMS aukera sartzen bada,
- 3) MMSak bidaltzeko parametroak betetzen badira (ikus 39. orrialdea).

Hasierako pantailatik **mezuetara** sartzeko, sakatu  tekla gorantz edo sakatu **OK** tekla, eta aukeratu “**Mezu laburrak**” nabigazio-teklarekin eta berretsi **OK** tekla sakatuta.

Zure “**Mezu laburrak**” menuak postontzia dirudi: nabigatzailearekin, aukeratu nahi duzun ikonoa:

-  Jasotako mezuak: Bistaratu jasotako mezuak: irakurritakoak/irakurri gabeak/artxibatuak.
-  Sortu mezua: Sortu mezu berri bat (SMS/MMS/Vox MMS).
-  Irteerako ontzia: Bistaratu bidalitako eta bidali gabeko mezuak.
-  Bidalketako parametroak: Konfiguratu zure parametroak.

⁽¹⁾Galdetu operadoreari MMS zerbitzua baduzun edo ez.

Zure mezuak kontsultatzean, ikono hauek bistaratzen dira:

- mezu-mota:  SMS mezuak,  MMS mezuak,  MMSaren jakinarazpena,  MMSa bidaltzen
- mezua zein memoriatan gorde den:  SIM txartelean gordetako mezua (SMS bakarrik)  telefonoan gordetako mezua (MMSaren jakinarazpena).

7.2 Mezuak irakurtzea

Mezu labur bat iristen denean, **“Mezu berriak irakurri?”** mezua jasotzen da, baita seinale akustiko bat ⁽¹⁾ ere, eta  ikonoa bistaratzen da.

7.2.1 Mezu laburrak irakurtzea (“Testua/SMSa”)

Mezu berri bat bakarrik baduzu, sakatu  tekla zuzenean hasierako pantailatik kontsultatzeko. Hainbat mezu badituzu, sartu zerrendara: aukeratu mezu bat nabigatzailea erabilita eta  sakatuta. Irakurri mezu osoa  nabigatzailearekin mugituta.

Mezuak jasotzean, horiekin jasotako irudiak, soinuak edo testuak gorde egin daitezke, eta geroago ikusi.

Erabilgarri dauden aukerak

SMS mezu bat irakurtzean, sakatu  tekla aukera hauetan sartzeko:

⁽¹⁾ Seinale akustikoa aldatzeko edo desaktibatzeko, ikus 41. orrialdea.




Ezabatu	• Ezabatu hautatutako mezua.
Erantzun	• Idatzi mezuaren erantzuna.
Berriz bidali	• Berriz bidali mezua.
Artxibatu	• Pasatu mezu bat SIM txarteletik telefonoaren memoriara.
Gorde irudia	• Gorde mezuarekin batera jasotako irudia.
Gorde anim.	• Gorde mezuarekin batera jasotako animazioa.
Gorde doinua	• Gorde mezuarekin batera jasotako doinua.
Gorde aurrez zehazt.	• Gorde mezua aurrez zehaztutako mezu gisa
Gorde Zkia.	• Gorde mezuko zenbaki bat edo hainbat.
WAP abiarazi	• Joan mezuan dagoen WAP helbidera.
Itzuli	• Itzuli mezuaren edukira.
Irten	• Itzuli hasierako pantailara.

7.2.2 “Multimedia/MMS” eta “VMS/MMS ahotsa” mezua irakurtzea ⁽¹⁾

Bi aukera dituzu MMS mezuen harrera kudeatzeko: berehala jasotzea edo geroago jasotzea. Berretsi **“Mezu laburrak”** menuko **“Bidalketako parametroak”** aukeran hautatutako aukera (ikus 39. orrialdea)

- **“Berehalakoa”**: deiak jasotzeko/egiteko egoeran,  ikonoak adierazten du mezu bat deskargatzen ari dela. Ondoren, **“Mezu berriak irakurri?”** mezua bistaratzen da. Sakatu **OK** tekla mezuaren aukerara sartzeko eta hautatu **“Ireki”**. Mezu horretako edukia automatikoki gordeko da telefonoaren memorian. Aukera honi esker, mezuko irudiak, soinuak edo testuak gorde ditzakezu eta ondoren erabili.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.



Mezu bat
deskargatzen ari da

Sakatu **OK** tekla eta irakurri mezu berria

- **“Geroago hartzea”**: Zuk jakinarazpen bat jasoko duzu bidaltzailearen izena eta zenbakia eta mezuaren izenburua aipatuz (izenburu hori gorde bada). Edozein unetan deskarga dezakezu MMSa irakurtzeko; irakurri gabe ere ezaba dezakezu; kasu horretan, MMSa bidali duenak ez duzula onartu jakinaraziko dion oharra jasotzen du.

MMS bat hautatzean dauden aukerak ⁽¹⁾ :

- | | |
|-------------------------------|--|
| Ireki/Desk. | • Irakurri hautatutako mezua. |
| Ezabatu mezu | • Ezabatu MMSa. |
| Inf. gehiago | • Sartu MMSaren xehetasunetan: tamaina, mota, lehentasuna, hedapen-taldea... |
| Erantzun | • Erantzun SMS, MMS edo Vox MMS ahots-mezu bidez. |
| Guztiei | • Erantzun MMSaren erantzun hartzaile guztiei. |
| Berriz bidali | • Bidali berriro MMSa beste pertsona bati (MMSaren edukia ezingo da aldatu). |
| Artxibatu | • Gorde MMSa “Artxiboak” aukeran. |
| Gorde zkia. / helbidea | • Gorde zenbakia edo helbide elektronikoa zure direktorioan. |
| Itzuli | • Itzuli aurreko pantailara |
| Irten | • Itzuli hasierako pantailara. |

⁽¹⁾ Aukeratutako harrera-moduaren arabera aukerak.

Mezua irakurtzen ari zarela, aukera osagarrietara sartu ahal izango zara, **OK** tekla sakatuta edo ezkerreko funtzio-tekla sakatuta ("**Menua**"):

- Eskuz** • Mezuak orri bat baino gehiago izanez gero, automatikoki pasatzeko.
- Aurreko diapo.** • Joan aurreko orrira.
- Berrabiaraztea** • Berrabiarazi mezuak irakurtzeko aukera.
- Isilik/
Soinuarekin** • Bistaratu zure mezuak soinuarekin edo soinurik gabe.
- Gorde objektuak (1)** • Gorde MMS bidez jasotako irudiak edo soinuak, uneko orritik.

7.3 Mezu laburrak ("**Testua/SMSa**") idaztea eta bidaltzea

7.3.1 Mezu laburrak idaztea ("**Testua/SMSa**")

"Mezu laburrak" funtziotik, joan **"Sortu mezua"** menura. Aukeratu **"Testua/SMSa"** eta sakatu **OK**. Aurrez definitutako mezu bat osa dezakezu edo mezu berri bat sor dezakezu.

Irudiak, soinuak, aurpegierak

Zure mezuak pertsonaliza ditzakezu irudiak eta soinuak sartuta, edo zure emozioak irudika ditzakezu telefonoko aurpegierak erabilita:

Zure aurpegierak ere sar ditzakezu karaktere alfabetikoak erabiliz; adibidez: ":-)"

"Aurrebista" aukeratuta, zure mezuak idatzitakoa bistaratu ahal izango duzu; ikonoak, soinuak eta aurpegierak pantailan bistaratzen dira.

(1) - Objektu bat bada: sakatu **OK** gordetzeko.

- Hainbat objektu badira: sakatu **"Menua"**, aukeratu objektuak banan-banan **"Hurrengoa"** aukeratuta eta sakatu **OK** gordetzeko.



Aurpegiera, ikono edo soinu baten sarrera  ,  edo  ikurrarekin adierazten da.

Telefonoa osatu nahi baduzu, soinu eta irudi berriak deskarga ditzakezu WAPetik (ikus 84. orrialdea).

Mezuaren hartzaileak EMS estandarrarekin bateragarria den telefono mugikor bat izan behar du, mezuaren ikonoak eta aurpegierak bistartzeko eta soinuak entzuteko.



160 karaktere baino gehiagoko mezua idazten baduzu eta ikonoak, soinuak edo aurpegierak sartzen badituzu, hainbat mezu fakturatuko dira. Jarri harremanetan zure operadorearekin.

Mezua idaztean, aukera hauetara sar zaitezke **OK** tekla sakatuta:

Honi bidali

- Bidali mezua

Prediktiboa

- Pasatu modu prediktibora.

Erantsi

aurpegiera

- Erantsi aurpegiera bat mezuari.

Aurrebista

- Bistaratu zure mezua.

Erantsi irudia

- Erantsi ikono bat mezuari.

Itzuli

- Itzuli aurreko pantailara

Erantsi doinua

- Erantsi doinu bat mezuari.

Irten

- Itzuli hasierako pantailara.

Ikurrak

- Joan ikurren taulara.

Modu prediktiboan beste aukera batzuk ere badaude (ikus 37. orrialdea).

7.3.2 SMS bat bidaltzea

Mezuak honela bidal ditzakezu:

- Eskuz, hartzailearen zenbakia idatzita.
- Direktorioan jasotako norbaiten zenbakira deituta.
- Zenbait hartzaileri, banaketa-zerrenda erabiliz (aukeratu **“Banaketa-zerrenda”** aukera).
- Konfiguraturako pertsona-talde bati.
- Zuzenean zure direktorioan sartu edo kopiatu ahal izango duzun helbide elektroniko batera ⁽¹⁾.

“Parametroak” aukeran, **“Hartu izanaren abisua”** aktibatuta badago, bidalitako mezuak kontsultatzean, ikur hau bistaratuko da:

✓ **Mezua jasota:** mezua bidalita eta jaso izanaren adierazpena jasota.

✗ **Mezua jaso gabe:** mezua bidalita eta jaso izanaren adierazpenaren zain, edo mezua ez da ondo bidali. Bidali berriro mezua.

7.4 Multimedia mezuak (“Multimedia/MMSa”) idaztea eta bidaltzea

7.4.1 “Multimedia/MMSa” mezuak idaztea

“Mezu laburrak” funtziotik, joan **“Sortu mezua”** menura. Aukeratu **“Multimedia/MMSa”** eta sakatu **OK**.

⁽¹⁾ Operadorearen arabera.

Mezu honek orri bat baino gehiago izan ditzake. Gehienez, 50 kilobyteko memoria har dezake. Zure MMSa sortzean, erabilitako memoriari buruzko informazioa jasotzen duzu (orri guztiak barne hartuta).

Orri bakoitzak mota bakoitzeko elementu bakar bat izan dezake; beste objektu bat gehitu nahi baduzu, nahitaez beste orri bat sortu behar duzu, adibidez: MMS berean 3 irudi bidaltzeko, 3 orri sortu behar dira.

Aukeratu **OK** teklarekin aukera hauetako bat, MMSa osatzeko.

Erantsi irudia • Erantsi **“Bilduma”** funtzioaren irudi bat edo animazio bat (ikus 69. orrialdea).

Erantsi testua • Idatzi testua.

Erantsi soinua • Erantsi **“Bilduma”** funtzioaren soinua edo ahots-mezu bat.

Erantsi orria • Erantsi orri bat MMSari.

Itzuli • Itzuli aurreko pantailara

Irten • Itzuli hasierako pantailara.

MMSa sortzean, orri batetik bestera nabiga dezakezu ◀▶ tekla sakatuta.

Horrez gain, elementu bat edo orri bat aldatu edo ezaba dezakezu edo zure mezua gorde dezakezu, eta geroago segitu sortzen.

7.4.2 MMS bat bidaltzea


MMSa pertsona bati bidal diezaiokezu, bere zenbakia sartuta edo direktorioan aukeratuta, edo talde bati (ikus 40. orrialdea) bidal diezaiokezu edo helbide elektroniko batera bidal dezakezu.

Bestalde, MMS bati erantzun diezaiokezu beste MMS bat, SMS bat edo Vox MMS mezua bidalita.



Testua bakarrik bidaltzeko, SMSa erabiltzea aholkatzen dugu.

Bidalketan akatsen bat gertatuz gero, mugikorrak automatikoki berrabiaraziko du bidalketa⁽¹⁾.  ikonoa pantailaren goiko aldean bistaratuko da bidalketa automatikoa egiten saiatzen zaren guztietan.



“Bidali gabekoak” ontzian,  ikonoak adierazten du automatikoki bidaltzen ari dela.

Behin betiko akatsa gertatuz gero, mezu batekin jakinaraziko zaizu. **“Bidali gabekoak”** ontzian,  ikonoak adierazten du MMSa ez dela bidali. Berrir hautatu eta OK tekla sakatzen baduzu, berrir bidal, alda edo ezaba dezakezu.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

7.4.3 Ahots-mezua sortzea eta bidaltzea (“MMS/VMS ahotsa”)

“Mezu laburrak” funtziotik, joan “Sortu mezua” menura eta aukeratu “MMS/VMS ahotsa”. “MMS/VMS ahotsa” funtzioak mezuak bizkor bidaltzeko aukera ematen du, idatzi gabe, solaskideari etenik eragin gabe; hark MMS arrunt bat bezala jasoko du (1). Edozein mezuri erantzun diezaiokezu “MMS/VMS ahotsa” aukerarekin.

7.5 Testua idazten laguntzeko sistema

Mezuak idazten laguntzeko, telefonoak laguntza-sistema bat dauka (modu prediktiboa) (2). Hitz bat idazteko, nahikoa da hitza osatzen duten letren tekla behin bakarrik sakatzeko. Kurtsorea bistartzeko era testua idazteko moduaren arabera da:

- Modu prediktiboan 
- Modu arruntean 

Hitza berresteko eta tartea sartzeko, sakatu ◀▶ eskuinera edo ⬆ tekla gora edo  tekla.



Baliteke bistartzen den hitza ez izatea zuk nahi duzuna; sistemak hitz arruntenak proposatzen ditu. Beraz, ez hartu kontuan hasieran proposatzen diren hitzak, letrak idazten zoazen heinean egokitzen baita bilaketa.

Modu arrunteko / modu prediktiboko tekla espezifikak



Arrunta: Ikurren taula bistartzen da.

Prediktiboa: Ikurra edo puntuazio-zeinua duten (adibidez, apostrofea, @, gidoia, etab.) eta hiztegiak proposatzen dituen hitzak bistartzen dira.

(1) Vox MMS hau MMS arrunta da, soinu bat du AMR formatuan eta AMR IETF telefono bateragarrietan eta soinu-deskodematzailerik egokia duten ordenagailuetan bakarrik entzun ahal izango da.

(2) Hizkuntzaren arabera.



Arrunta: “+”, “0” edo “•” ikurrak idazteko erabiltzen da.

Prediktiboa: Hiztegiko gainerako hitzak bistaritzen ditu.



Labur sakatuta: automatikoki  maiuskulaz , minuskulaz  , zifrak 12 idazteko moduetara aldatzen da.

Luze sakatuta: Modu arruntetik modu prediktibora eta alderantziz aldatzen da.

Erabilgarri dauden aukerak

Idazteko modu arruntean dauden aukerez gain, beste aukera hauek ere badaude:

Berretsi • Berretsi aukeratutako hitza.

Beste hitz batzuk • Ikus proposatutako beste hitzen zerrenda.

Erantsi • Erantsi hitz bat hiztegian.

Erantsi zkiak. • Aldatu zenbakizko modura.

Arrunta • Pasatu modu arruntera.

Hizkuntzak • Erabili beste hizkuntza bateko hiztegia.

Gorde • Gorde mezua

Telefonoan hiztegi pertsonala duzu eta hor hitzak gehitu ⁽¹⁾, aldatu edo ezaba ditzakezu. Mezu bat idaztean, hitz bat gehi dezakezu  tekla sakatuta eta **“Erantsi”** aukera hautatuta.

7.6 Bidalketako parametroak

Mezuen menutik, sakatu  tekla, eta, ondoren,  ikonoa aukeratu nabigazio-teklarekin.

7.6.1 Parametroak

Parametro hauek alda ditzakezu:

⁽¹⁾ Jarri harremanetan zure operadorearekin.

I-Testua/SMSa

- **CS** ⁽¹⁾: zure operadorearen zerbitzu-zentroaren zenbakia (automatikoki proposa daiteke)
- **EC** ⁽¹⁾: mezu elektroniko bat bidaltzeko erabilitako zerbitzariaren zenbakia (automatikoki proposa daiteke).
- **AR**: mezua bidaltzean, jaso izanaren jakinarazpena eskatzea.
- **Val**: huts eginez gero, epe horren barruan mezua berriro hartzaileari bidaliko dio sareak.
- **Mota**: hartzaileari bidali beharreko mezu-mota (SMS, faxa, etab.).
- **Mem**: telefonoa edo SIMa (ikus 40. orrialdea).

2-Multimedia/MMS

- **MMS profila** ⁽¹⁾: MMSaren konexio-profila konfiguratzeko, WAP konexioa konfiguratzeko bezala egin (ikus 65. orrialdea).
- **Modua**: aukera honetan, berehala edo geroago hartzea hauta dezakezu, estaldura nazionalerako eta nazioarteko estaldurarako (ikus 30. orrialdea).
- **AR**: bidaltzen den mezu bakoitzeko jaso izanaren jakinarazpena eskatzea.
- **Val**: huts eginez gero, epe horren barruan mezua berriro hartzaileari bidaliko dio sareak.
- **Mem**: dagokionaren arabera, gorde edo jaso automatikoki bidalitako mezuak, bidalketa bakoitzean.
- **Kontagailua**: orriak pasatzeko abiadura konfiguratzeko aukera ematen du (hartzaileak abiadura horrekin bistaratuko du mezua).

⁽¹⁾ Eskatu operadoreari eremu horiek betetzeko informazioa.

7.6.2 Nola gordetzen dira zure mezuak?

“Bidalketako parametroak” menutik **“Mem.”** aukera hautatzean, 3 modu daude mezuak kudeatzeko (ikus 39. orrialdea):

1-Bidalitakoak:

- Gorde mezuak SIM txartelean (SMSak bakarrik).
- Gorde mezuak telefonoaren memorian (SMSak eta MMSak),
- Bidali mezuak gorde gabe; ezingo dituzu gero kontsultatu (SMSak, MMSak, Vox MMSak barne).

2-Jasotako mezuak:

- Mezu laburrak (SMS) beti gordetzen dira SIM txartelaren memorian.
- Multimedia-mezuak beti gordetzen dira telefonoaren memorian.
- Zure mezuak (SMSak /MMSak) ontziko “Artxiiboak” espedientean gorde ditzakezu; artxibatutako edozein mezu (SMSa edo MMSa) sistematikoki gordeko da telefonoaren memorian.

7.6.3 Talde bat sortzea

Aukeratu **“Erantsi talde bat”** aukera, berretsi  teklaarekin eta idatzi taldearen izena. Ondoren, idatzi taldea osatuko duten hartzaileen zenbakiak.

7.6.4 Mezuak ezabatzea

SIM txarteletako eta Artxiiboetako mezu guztiak ezabatzeko, joan **“Bidalketako parametroak”** menura eta hautatu aukera hauek:

- **“Ezabatu SIMeko mezuak”**: ezabatu SIM txarteletik bidalitako eta jasotako mezu guztiak.
- **“Ezabatu produktuko mezuak”**: ezabatu produktuan gordetako mezu guztiak.



SIM txartelaren edukia operadorearen araberakoa da. Memoria beteta dagoenean,  ikonoa bistaratuko da. Ezabatu mezu batzuk SMS berriak jaso ahal izateko.

8 Pertsonalizatzeko aukerak.....

Hasierako pantailatik, aukeratu menuko  ikonoa, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko.

8.1 Soinuak

Erabil ditzakezun funtzioak

Soinuen parametroak aldatzeko, mugitu   teklarekin.

 Aukeratu doinu bat  tekla erabilita eta berretsi **OK** tekla sakatuta.

 Modua (arrunta, neurritsua, bibragailua, etab.).

 Doitu bolumena  teklarekin.

 Aukeratu teklen tonu-mota.

 Aukeratu mezu berriak iristen direnerako doinua.

 Aukeratu hitzordu berri bat iristen denerako doinua.

 Aukeratu alarma berri bat iristen denerako doinua.

Modua

Arrunta

- Txirrin arrunta (pixkanaka ozenago bihurtzen doan bolumena).

Neurritsua

- Bip batzuk eta ondoren txirrin arrunta (pixkanaka ozenago bihurtzen doan bolumena).

Bibragailua

- Bibragailua aktibatzen da eta gainerako seinale akustikoak desaktibatzen dira (txirrina, mezuen tonua, hitzorduen alarma, bateria deskargatuta dagoela adierazteko bip-a).  ikonoa bistaratzen da.

Bibr.Bip. Doinua

- Bibragailuaren ondoren bip batzuk eta gero txirrin arrunta (pixkanaka ozenago bihurtzen doan bolumena).

Bip + Bibragailua

- Bip-aren ondoren, bibragailua.

Isila

- Ez da ez soinurik ez bip-seinalerik entzuten; alarmak bakarrik.  ikonoa bistaratzen da.



Osagarriaren bat erabiliz gero, modua desaktibatu egin daiteke (ibilgailurako full duplex esku libreko kita, etab.).

8.2 Inguruneak

“Inguruneak” menuan telefonoa bizkor pertsonaliza dezakezu zure gustuen arabera; berez, automatikoki eta txanda bakarrean pertsonalizatzeko 7 elementu alda ditzakezu. Hasierako pantailatik menu horretara sartzeko, sakatu **OK** tekla, eta, nabigatzailearekin, aukeratu “**Pertsonalizatzea**” aukera, sakatu berriro **OK** eta aukeratu “Inguruneak” menua.

Ingurunea elementu hauez osatuta dago:

Ikusten diren 4 elementu:

- Pizteko pantailako irudia/animazioa
- Itzaltzeko pantailako irudia/animazioa
- Hasierako pantailako irudia/animazioa
- Estilo grafikoak eta koloreak


Entzuten diren 3 elementu:

- Jasotako deietarako doinu bat
- Pizteko doinu bat
- Jasotako mezuen alarmetarako doinu bat

Lehen aldiz erabiltzean, lehenetsitako ingurunea aktibatuko da.

Ingurune bat aukeratuta ere, elementuak banan-banan alda ditzakezu (ikus 44-45 orrialdeak). Edozein unetan aktiba daiteke berriro ingurune bat.

Ingurune bat aldatzeko, instalazio-pantaila bat bistaratzen da:



Itxaron 7 elementuak instalatu arte.



Ingurunea instalatzeko prozesua geldiarazi egin daiteke, dei bat jasotzen bada edo C tekla sakatzen bada. Kasu horretan, lehendik hautatuta zegoen Ingurunea geratuko da ezarrita.

8.3 Deiak jasotzeko/egiteko egoerako pantaila

Telefonoa piztean eta/edo funtziorik erabiltzen ez duzunean (deiak, mezu laburrak bidaltzea, etab.) bistaratzen da hasierako pantaila.

Teklatua blokea dezakezu  tekla luze sakatuta.

Hasierako pantailatik, zuzenean sar zaitezke direktoriora ▼ tekla beherantz sakatuta, mezuetara ▲ tekla gorantz sakatuta, bildumara ◀▶ ezkerrean edo eskuinean sakatuta.

“Deiak jasotzeko/egiteko egoera” aukeratuta, pantaila hori pertsonalizatzeko aukera duzu, eta, hartara, telefonoan lehenespenez bistaratzen den irudia edo animazioa ordezkatzeko.

8.4 Koloreak


Funtzio honek telefonoko estilo grafikoak eta koloreak pertsonalizatzeko aukera ematen dizu (menuen pantailak, datuak sartzeko pantailak, etab.).

Funtzio horretara sartzeko, **“Pertsonalizatzea”** menuatik, sakatu **OK** tekla; ondoren, aukeratu **“Koloreak”** nabigazio-teklarekin.

8.5 Konpositorea

8.5.1 Konposatzea

Aukeratu **“Konposatu”** eta erabili teklatura beheko irudian adierazten den bezala:



8.5.2 Grabatu


Aukeratu **“Grabatu”** soinu bat edo doinu bat grabatzeko.

8.6 Pizteko/itzaltzeko pantailak

Telefonoa piztean bistaratzen diren ongietorriko mezua, animazioa, doinua edo irudia pertsonaliza ditzakezu.

Telefonoa itzaltzeko pantaila ere pertsonaliza dezakezu, irudi bat edo animazio bat hautatuta.

8.7 Energia aurrezte



Funtzio hau aktiba edo desaktiba dezakezu:

- Desaktibatuta: hasierako pantailak bistaratuta segitzen du.
- Aktibatuta: segundo batzuk pasatu ondoren, beste pantaila bat bistaratzen da, informazio honekin: erlojua, bateriaren karga, sareko seinalea.

Lehenespenez, energia aurrezteko modua aktibatuta dago.



Modu hori erabiltzen segitzeko aholkatzen dizugu, telefonoaren autonomia hobea ziurtatzeko.

8.8 Zooma ⁽¹⁾

Zure telefonoak bi tamainako karaktereak bistara ditzake. Lehenespenez, karaktere handietan bistaratzen du; informazio gehiago bistaratu nahi baduzu, hautatu **“Zooma”**.

⁽¹⁾ Hizkuntzaren arabera.

8.9 Teklak pertsonalizatzea (Teklak) ⁽¹⁾

8.9.1 Tekla pertsonala ⁽¹⁾

Tekla honen funtzioak aldatu egiten dira telefonoaren modeloen arabera (operadorearen zerbitzuak, jokoetara sarbidea, etab.). Zuk luze eta labur sakatuta nahi dituzun funtzioak emanda pertsonaliza dezakezu. Adibidez, Agendara zuzenean sartzeko funtzioa, mezuak idaztekoa eta abar esleai diezazkiokezu.

8.9.2 Teklatua

Teklak pertsonalizatzeko funtzioari esker, hasierako pantailatik solaskide bati dei diezaiokezu edo funtzio batera sar zaitezke.

Teklatuko tekla bat programatzeko, aukeratu **“Teklatua”** eta hautatu programatu nahi duzun tekla. Ondoren, hautatu **“Zenbakiak”** zuzeneko dei bat programatu nahi baduzu, eta **“Funtzioa”** hautatutako teklarekin funtzio bat lotu nahi baduzu.

8.10 Ahots-komandoak

Ahots-komandoek menuko funtzio batzuetara funtzioaren izena esanda sartzeko aukera ematen dute.

Ahots-komando bat grabatzea

Menuko funtzio baterako ahots-komando bat grabatzeko, aukeratu **“Ahots-komandoa”**, nahi duzun funtzioa eta segitu jarraibideei.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

 ikonoak adierazten du zein funtziok duten grabatuta ahots-komandoa. 10 funtziotara sar daiteke ahotsa ezagutzeko funtzioa erabilia.

Ahots-komandoak erabiltzea

“Ahots-komandoak” aktibatzeke, luze sakatu  tekla hasierako pantailan. Ahots-komando bat erabiltzeko, segitu pantailan bistaratuko diren jarraibideei.

Grabatu ondoren, ahotsa ezagutzeko mezua **“Entzun”**, **“Ordezkatu”** edo **“Ezabatu”** egin dezakezu.

8.11 Nire zenbakiak

Nire zenbakia

Gorde zure telefono-zenbakia (normalean, SIM txartelean agertzen da), sartu zenbakia eta berretsi **OK** sakatuta.

Ahots-postontzia

Aldatu ahots-postontzira sartzeko zenbakia.

8.12 Doikuntzak

Zerbitzuak

Deia desbideratzea ⁽¹⁾

Ahotsa	Deiak zuk adierazitako zenbakira desbideratzeko funtzioa aktibatzea/desaktibatzea (sartu zenbakia, berretsi OK sakatuta).
Aukera	hau kasu hauetan aplikatzen da:
• Guztiak	Dei guztiak sistematikoki desbideratzea.  ikonoa bistaratzen da.
• Baldintzapekoa	Zure linea okupatuta dagoenean, erantzuten ez duzunean edo saretik kanpo zaudenean.
• Okupatuta badago	Linea okupatuta dagoenean bakarrik.
• Erantzunik ez	Deiari erantzuten ez diozunean bakarrik.
• Saretik kanpo	Sarearen estalduratik kanpo zaudenean bakarrik.
Datuak	Datuak jasotzeko deiak zuk adierazitako zenbakira desbideratzen dira automatikoki.
Faxa	Faxa jasotzeko deiak zuk adierazitako zenbakira desbideratzen dira automatikoki.

Egoera Telefonoan aktibatuta dauden desbideratzeen zerrenda.

Guztia bertan behera utzi Aktibatutako desbideratze guztiak bertan behera geratzen dira.

Debekatuak

Irteerakoak	Deiak egiten debekua aktibatzea/desaktibatzea. Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:
• SIM Dir. izan ezik	Zure direktorioan ez dauden zenbakietara ezin da deirik egin.
• Guztiak ⁽¹⁾	Edozein dei egitea debekatzen da.
• Nazioartekoak ⁽¹⁾	Nazioarteko deiak egitea debekatzen da.
• Herrialdera izan ezik	Ordainketa egiten den herrialderako ez beste herrialde guztietarako deiak debekatzen dira.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

• FDN izan ezik ⁽¹⁾	SIM txartelean dagoen “FDN” direktorio zehatz batekin alderatuta egindako deiak iragaztea.
Aktibatu/ desaktibatu	“FDN” direktorioan gordeta ez dauden zenbakietako dei guztiak debekatuta daude.
Aldatzea	“FDN izan ezik” aukera aktibatuta badago, PIN2 kodea sartu ondoren, “FDN” direktorioa eguneratu ahal izango duzu (OK tekla sakatuta egunera dezakezu “FDN” direktorioa).
Sarrerakoak	Aktibatu/desaktibatu deiak jasotzeko debekua. Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:
• SIM Dir. izan ezik	Zure direktorioan ez dauden zenbakietatik ezin da deirik jaso.
• Guztiak ⁽¹⁾	Sartzen diren dei guztiak debekatzen dira.
• Atzerrian ⁽¹⁾	Atzerrian egonez gero, sarrerako dei guztiak debekatzen dira.
Egoera	Telefonoan aktibatutako debekuen zerrenda.
Sarea	
Hedapen-zerrenda ⁽¹⁾	Sare bidez banatutako mezuak (meteorologia, zirkulazioa, etab.) hasierako pantailan automatikoki bistaratzen dira.
• Hedapen-zerrenda	Bistaratuko diren mezuen kodeen zerrenda.
• Harrera	Hautatutako aukeraren arabera, sare bidez zabaldutako mezuak bistaratzen ditu telefonoak.
Mugatua zerrendaren	Telefonoak aldizkakotasunez jasotzen ditu mezuak eta arabera bistaratzen ditu (ikus “Hedapen-zerrenda” aukera).
Osorik zerrendaren	Telefonoak era iraunkorrean jasotzen ditu mezuak eta arabera bistaratzen ditu (ikus “Hedapen-zerrenda” aukera).
Bakar bat ere ez	Telefonoak ez du mezurik jasotzen.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Bilaketa	Konexio-sarearen bilaketa.
• Erabilgarri daudenak	Zure inguruan erabilgarri dauden sareen zerrenda.
• Modua	Hautatutako aukeraren arabera, sarea honela bila daiteke:
Automatikoa	Telefonoa azkena erabili den sarera konektatzen da aurrena.
Eskuz	Telefonoa erabiltzaileak hautatutako sarera konektatzen da.
• Gogokoak	Lehentasunez, konektatu nahi duzun sareen zerrenda (zerrenda eguneratzeko, sakatu OK).

Deiak

Deia zain ⁽¹⁾	Aktibatu/desaktibatu seinale akustikoa bigarren deia jasotzean.
Anonimatua ⁽¹⁾ (CLIR)	Zure deiak anonimoak izan daitezen aktibatu/desaktibatu deia (zure zenbakia ez zaie transmitituko sare bidez solaskideei).
Nor da? ⁽¹⁾ (CLIP)	Aktibatu/desaktibatu pantailan zure solaskidearen zenbakia bistaratzeko aukera (edo izena, direktorioan badago).
Sare bidez automatikoki berriro deitzea ⁽¹⁾	Deitu eta okupatuta zegoen azken zenbakira automatikoki berriro deitzeko aukera ematen du.

Automatikoki berriro deitzea

Aktibatu/desaktibatu	Aktibatu/desaktibatu zure solaskideei automatikoki berriro deitzeko funtzioa, deiari erantzun ez diotenean.
Ikus zerrenda	Berriro deitzeko saiakerak huts egin du zenbaki horien kasuan (10 saiakeraren ondoren).
Zerrenda hustu	Ezabatu zerrenda.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Faktura

Kostua ⁽¹⁾	Fakturatutako deien kostuaren kudeaketa.
Kostu osoa	Dei guztien kostua.
Erabilgarri dagoen kreditua ⁽¹⁾	“Gehienezko kreditua” zenbatekoarekiko erabilgarri dagoen kreditua.
Gehienezko kreditu ⁽¹⁾	Baimendutako gehienezko kreditua; balio honen gaintetik, faktura daitezkeen dei guztiak galarazita daude (kreditua gehitu - OK sakatuta berretsi).
Zeroan jarri	Fakturatutako deien kostu osoa zeroan jartzea.
Unitatea	Telefono-unitatearen kostua zuk aukeratutako monetan (aukeratu “Beste bat?” aukera beste moneta bat hautatzeko eta erabili  tekla hamartar bat sartzeko).
Iraupena	Deien iraupena kudeatzea.
Iraupena guztira	Egindako deien iraupena guztira.
Erabilgarri dagoen iraupena	“Iraupena finkatu” aukeran adierazitakoarekiko erabilgarri dagoen denbora (informazio gisa emana).
Iraupena finkatu	Ordainketaren iraupena (iraupena sartu – berretsi OK tekla sakatuta).
Zeroan jarri	Egindako dei guztien iraupen osoa zeroan jartzea (berehala edo aldizka).
Kontagailua GPRS	Fakturatu beharreko datuak trukatzeko bolumenaren kudeaketa (kilobyteak).
Bolumen osoaren kontagailua	Datu-trukearen bolumen osoa.
Sarbide-puntua	Sarbide-puntuko datu-trukearen bolumena.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

- 1-2 sarbide-puntua 1 edo 2 sarbide-puntuko datu-trukearen bolumena.
- Metatutako 1 edo 2 sarbide-puntu guztietako datu-trukearen bolumena.
- bolumen osoa
- Azken kontagailua 1 edo 2 azken sarbide-puntuko datu-trukearen bolumena.
- Zeroan jarri 1 edo 2 sarbide-puntu guztietako datu-trukearen bolumenak
- zeroan jartzea.
- Bestelakoak Beste sarbide-puntu batzuetako datu-trukearen bolumena.
- Metatutako Sarbide-puntu guztietako datu-trukearen bolumena.
- bolumen osoa
- Azken kontagailua Azken sarbide-puntuko datu-trukearen bolumena.
- Zeroan jarri Sarbide-puntu guztietako datu-trukearen bolumenak zeroan
- jartzea.
- Zeroan jarri** Kontagailu guztiak zeroan jartzea

Laburpena

Azken deia	Azken deiaren kostua eta iraupena erakusten du.
Kostu osoa	Dei guztien kostua eta iraupena erakusten du.
Bip iraupena	Aktibatu /desaktibatu dei batean finkatutako maiztasunarekin bip-a emititzeko iraupena (sartu maiztasuna – berretsi OK sakatuta).

Kontrastea

Doitu pantailaren kontrastea (erabili  tekla).

Hizkuntzak ⁽¹⁾

Mezuak bistaratzeko hizkuntza (aukeratu  teklarekin). **“Automatikoa”** aukerarekin, ordainketa egiten duzun sareko hizkuntza hautatzen da (zure telefonoan hizkuntza hori erabilgarri badago).

Hiztegia

Telefonoan hiztegia duzu. Hiztegi horretan hitz pertsonalak sar ditzakezu; baita testua idazteko sistemak erabiltzen dituenak ere. Zure hiztegia kontsultatzean, hitzak sartu, aldatu edo ezaba ditzakezu **OK** teklako aukerak sakatuta.

Idazteko modua ⁽²⁾

Zure telefonoak testua idazteko zenbait modu ditu, baita karaktereen taula ere (arabiera, zirilikoa, txinera). Funtzio honi esker, mezu laburrak idatz ditzakezu eta izenak sar ditzakezu zure direktorioan.

(1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

(2) Hizkuntzaren arabera.

ML eramangarria

Automatikoa Automatikoki (teklarik sakatu gabe), gutxi gorabehera 2 txirrin-soinu egin ondoren (aukera hau aktibatzen da, bakar-bakarrik zure telefonoa audio osagarri batera edo esku libreko kitera konektatuta badago).

 tekla. Bakar-bakarrik  tekla sakatu ondoren.

Edozein tekla Teklatuko edozein tekla sakatu ondoren (I - #).

Ibilgailurako kita

Aukeratu esekitzeko modua eta txirrina.

2. linea

Zure SIM txartelak bi telefono-zenbaki izan ditzake. Egindako deiak aurrez hautatutako linean fakturatuko dira. Jasotako deiak bi lineatara iritsiko dira.



Programatutako zerbitzuak (deiak desbideratzea, etab.) hautatutako linean bakarrik balio dute.

Teklatua blokeatuta

Aktibatu/desaktibatu teklatua automatikoki blokeatzeko aukera.

Segurtasuna

PIN kodea ⁽¹⁾	SIM txartelaren babes-kodea. Kode hau aktibatuta dagoenean, telefonoa pizten den bakoitzean eskatzen da.
Aktibatu/ desaktibatu	Kodea aktibatzea (edo desaktibatzea).
Aldatzea	Kodea eguneratzea (4-8 digitu bitartean).
PIN2 kodea ⁽¹⁾	SIM txarteleko funtzio batzuk (faktura/kostua/FDN) babesteko kodea, kode hori aktibatuta dagoenean eskatzen du.
Aldatzea	Kodea eguneratzea (4-8 digitu bitartean).
Sareko kodea ⁽¹⁾	Sareko kodea, sarearekin lotutako zenbait aukerataraz ("Debekatutakoak") sartzeko eskatzen du.
Menuaren kodea	Menuko zenbait aukera (zerbitzuak, doikuntzak, hizkuntzak) babesteko kodea; kode hori aktibatuta dagoenean eskatzen du.
Aktibatu/ desaktibatu	Kodea aktibatzea (edo desaktibatzea).
Aldatzea	Kodea eguneratzea (4-8 digitu bitartean).
Kodea Telefonoa	Telefonoa babesteko kodea; telefonoa pizten den bakoitzean eskatzen du. Kode hori aktibatuta dagoenean.
Aktibatu/ desaktibatu	Kodea aktibatzea (edo desaktibatzea).
Aldatzea	Kodea eguneratzea (4-8 digitu bitartean).

⁽¹⁾ Jarri harremanetan zure operadorearekin.

9 Tresnak.....



9.1 Agenda

Zure telefonoak antolatzaile sofistikatua du; antolatzaile horren bidez, denboraren erabilera kudea dezakezu. Zereginen zerrenda ere memoriza dezake.

Agenda kontsultatzea

Hiru egutegi dituzu. Lehenengo nahi duzun ikonoa aukeratu behar duzu:



Egunen arabera egutegia



Asteen arabera egutegia



Hilen arabera egutegia



“Egin beharreko zereginak”



Parametroak

Egutegian zehar mugitzeko, sakatu  tekla.

Egutegiaren arabera, elementu bat kontsulta, sor, alda edo bidal dezakezu.



Direktorioko eta agendako informazioak ordenagailu batekin truka daitezke, Alcatelen PCrako programen paketearekin (ikus 84. orrialdea).

Hitzordu bat sortzea eta alarma bat programatzea

Hitzordu bat sortzen duzunean (“**Sortu**” aukera) alarma aktiba dezakezu. Alarma aktibatzeko ordua programa dezakezu, hitzorduaren orduaren arabera.

Zeregina sortzea

Joan zaitez  ikonora ◀▶ teklaekin eta sakatu **OK** tekla. Aukeratu “**Hautatu mota**”, berretsi berriro eta sartu egin beharreko zeregin-mota (“Egin beharreko zeregina” edo “telefono-hitzordua”) eta gaia.

Zerrenda hori epemugaren edo lehentasunen arabera ordena daiteke. Horretarako, joan  ikonora ◀▶ tekla erabilita eta berretsi **OK** teklaekin.

Epemuga duen zeregin batentzako alarma sor dezakezu. Alarma horrek finkatutako egunean joko du, finkatutako orduan.

Agenda konfiguratzea

Joan  ikonora ◀▶ tekla erabilita, aukera hauetan sartzeko:

Alarma

- Programatu alarmaren eta hitzorduaren arteko lehenespenezko tartea.

Zereginaren arabera

- Sailkatu zereginak lehentasunaren edo epemugaren arabera.

Agenda

- Programatu egunaren hasierako ordua, astearen lehen eguna, urteko lehen astea.

Ezabatzea

- Ezabatu agendako zeregin edo elementu guztiak edo epemuga pasatako elementu guztiak.

Parametro bat aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu **OK** tekla. Atera konfigurazioaren funtzioetik, **C** tekla sakatuta.

Funtzio aurreratuak

Irudikapen grafikoak



Egunen araberako egutegia



Asteen araberako egutegia



Hilen araberako egutegia

-  Hitzordu bakarra programatuta.
-  Ordutegi horretan, gutxienez bi hitzordu programatuta.
-  Urteko zenbatgarren astea.
-  Ordu-tarte hori baino lehenago hitzordu bat dago programatuta.
-  Ordu-tarte hori baino geroago hitzordu bat dago programatuta.

Hilen araberako egutegia

Atzealde urdina Programatutako hitzordua

Atzealde zuria Hitzordurik ez dago programatuta

Egutegi hauetan, uneko egunak, asteak edo hilak keinuka bistaratzen dira.

9.2 Alarmak

Iratzargailua

Programatu iratzargailuaren maiztasuna (egunero edo bakarra) eta, ondoren, sartu ordua eta data, eta berretsi **OK** tekla sakatuta. Iratzargailuaren programazioaren gaia ere sar dezakezu, eta berretsi **OK** teklarekin edo  behera sakatuta.

Minutu-kontagailua

Programatu alarma aktibatu aurreko denbora-tartea eta berretsi **OK** teklarekin.

Aukerak

Alarma aktibatuta dagoenean,  ikonoa bistaratzen da hasierako pantailan. Telefonoa piztuta edo itzalita egon, alarma aktibatu egingo da, eta edozein tekla sakatuta desaktibatuko da.

“Errepikapenarekin” aukera hautatu baduzu, alarma hamar minutuko tarte erregularretan pizten da.

9.3 Bihurgailua

Moneta-bihurgailuari esker, hau egin dezakezu:

- Moneta bat euro bihurtu zuzenean, eta alderantziz ⁽¹⁾.
- Diru-kopuru bat beste moneta bat bihurtu (adibidez, dolarrak liberatan).

Euro bihurtuz gero, moneta lehenespenez alda dezakezu **“Doitu”** aukera hautatuta.

⁽¹⁾ Moneta-bihurgailuak 1998/12/31n erabakitako EUROaren behin betiko bihurketa-tasak hartzen ditu kontuan, eta bihurtze-arau ofizialen arabera erabiltzen ditu.


Nazioarteko monetak bihurtzean, bi monetak hautatu behar dituzu. Bi moneten arteko truke-tasa ere sartu behar duzu.

Moneta bakoitzeko, truke-tasaren balioa lehenetsi da. Balio hori alda dezakezu **“Doitu”** aukera sakatuta.



Hasierako pantailatik, sartu programatutako monetan jarri nahi duzun kantitatea eurotan, sakatu **OK** tekla eta aukeratu **“Bihurgailua”**.

9.4 Kalkulagailua



Idatzi zenbakia eta berretsi **OK** tekla sakatuta. Ondoren, aukeratu egin nahi duzun eragiketa-mota  tekla sakatuta eta berretsi berriro.

Idatzi bigarren zenbakia eta sakatu **OK** tekla.

Aukeratu **“=”** zeinua, emaitza ikusteko.

Hasierako pantailara itzultzeko, sakatu  tekla (luze sakatu).

9.5 Erlojua

Une berean bi erloju bistara ditzakezu (tokian tokikoa eta beste nonbaitekoa).

Tokian tokiko erlojua programatzeko, lehenengo udako edo neguko ordutegia automatikoki aldatzea hauta daiteke. Ondoren, nabigazio-teklarekin, kudeatu ordu-eremuak munduko mapan hiria aukeratuta. Bi erloju erabiltzen badituzu, tokiko erlojurako hiriaren izena aukeratu eta aldatu dezakezu, munduko mapa erabilia, eta eragiketa berbera egin beste nonbaiteko erlojuarekin.

Bi erlojuen irudikapena programatzea

Joan zaitez **“Erloju-mota”**  ikonoraino eta hautatu **“2 erloju”** aukera.

Ikusteko formatua

Erlojua formatu analogikoan edo digitalean bistara dezakezu eta data formatu hauetan, eguna/hila/urtea, hila/eguna/urtea edo urtea/hila/eguna, egunaren eta hilaren zenbakia edo lehen hiru letrak erabilita.

9.6 Memoria

Bistaratu memorian erabilgarri duzun espazioa. Zure telefonoan erabilgarri duzun memoria funtzio hauek erabiltzen dute: direktorioa, agenda, mezuak, ahots-gogorazleak, irudiak eta doinuak.

Adibidez, ahots-gogorazleetarako memoria asko erabili nahi baduzu, espazio libre gutxiago izango duzu direktoriorako.



Ezaba itzazu toki gehien hartzen duten elementuak (adibidez, ahots-gogorazleak, MMSak, argazkiak, grabatutako soinuak), memorian tokia egiteko. Telefonoa erosi zenuenetik telefonoan dituzun elementu batzuk ere ezaba ditzakezu.

9.7 Ahots-gogorazlea

Ahotsa gogorazteko funtzioa diktafono gisa erabil daiteke mezu pertsonalak grabatzeko.

Ahots-gogorazlea grabatzeko, aukeratu **“Ahots-gogorazlea”**, segidan **“Gorde”** eta, azkenik, hitz egin bip-aren ondoren. Ahots-gogorazle bat sortu ondoren, aukera hauetara sar zaitezke:

- | | |
|-------------------------|--|
| Entzun | • Entzun grabatutako ahots-gogorazlea. |
| Esku libreak | • Pasatu esku libreko modutik modu neurritsura. |
| Izenburua | • Aldatu ahots-gogorazlearen izenburua. |
| Memo->Bilduma | • Kopiatu ahots-gogorazlea soinuen bilduman (bidali MMS bidez edo erabili txirrin gisa). |
| Ezabatu | • Ezabatu hautatutako gogorazlea. |
| Itzuli | • Itzuli aurreko pantailara |
| Irten | • Itzuli hasierako pantailara. |

9.8 Infragorriak

Funtzio honek, infragorri bidez, zure kontaktuen edo agendako datuak trukatzeko aukera ematen du. Infragorrien ataka telefonoaren ezkerreko aldean dago.

Datuak bidaltzea

Datuak bidaltzeko, aukeratu direktorioko erregistroa, eta, ondoren, hautatu **“Datuak transferitzea”** aukera. Ez da beharrezkoa infragorrien funtzioa aktibatzea bidalketa egin aurretik.

Datuak jasotzea

Datuak jasotzeko, ezinbestekoa da infragorrien funtzioa aktibatzea. Mezu batek adierazten dizu datuak iritsi direla; gorde datu horiek  teklarekin edo ez onartu  teklarekin.

Aukera egin ondoren,  ikonoa bistaratzen da pantailaren beheko aldean. Infragorrien funtzioa automatikoki desaktibatuko da, denbora-tarte jakin bat pasatu ondoren. Funtzio hau maiz erabiltzen baduzu, teklatutik zuzeneko sarbidea programa dezazun aholkatzen dizugu (ikus 46. orrialdea). Konexioa dei bat jasotzean eteten da. Une berean, gehienez, hiru bisita-txartel edo hitzordu jaso ditzakezu.

9.9 Alarmak

Programatutako alarma guztiak bistara ditzakezu. Alarma aktibatu ondoren,  ikonoa bistaratzen da hasierako pantailan, egun horretarako edo hurrengo egunerako iratzargailua, minutu-kontagailua edo alarma programatu baduzu.

10 Gertaerak.....



Gertaera berri bat agertzean,  ikonoa bistaratzen da.



Gertaera guztiak bistaratu direnean desagertzen da  ikonoa pantailatik. Edonola ere, kontagailu guztiak zeroan jartzen dira (ikus 29. orrialdea).

Hasierako pantailatik **gertaeretara** sartzeko, hautatu  ikonoa menuan.

Zu ez zeunden bitartean telefonoan izandako gertaera guztien berri izan dezakezu.



Jasotako baina erantzun gabeko deiak (“Erantzun gabekoak”): bistaratu zurekin hitz egiten saiatu diren pertsonen zenbakiak ⁽¹⁾ (ikus 20. orrialdea).



Mezuak (“Jasotako mezuak”): irakurri jasotako mezuak (ikus 28. orrialdea).



Ahots-postontzia: entzun jasotako ahots-mezuak (ikus 17. orrialdea).



WAP alarmak ⁽¹⁾: bistaratu WAP bidez bidalitako informazioak.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez eta telefono-modeloaren arabera.

WAP/GPRS zerbitzuak (1).....

1.1 WAP zerbitzuetara sartzea

WAP (Wireless Application Protocol) Internet mugikorrek funtzioetara sartzeko aukera ematen duen zerbitzua da. WAP zerbitzuari esker, informazio hauek eskura ditzakezu: egoera meteorologikoa, burtsen egoera, zirkulazioari buruzko informazioa, etab.

“Hasierako orria” aukerak WAP nabigatzailea abiarazten du lehenespenez definitutako profilaren atarian, baten bat konfiguratuta badago.

“Gogokoak” aukerak gogoko guneen zerrendara sartzeko eta zerrendan gogoko gehiago eransteko aukera ematen du.

“WAP profila” aukeran, WAP zerbitzuetara sartzeko hornitzailearen konexio-parametroak programa ditzakezu. Oro har, nabigatzailearen konexio-parametroak sartuta egoten dira ⁽²⁾.

“Helbidea sartu” aukeran, sartutako WAP helbidera zuzenean sar zaitezke.

”Push modua ⁽¹⁾” aukeran Push moduak konfigura eta aktiba ditzakezu.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

⁽²⁾ Eskatu zure operadoreari WAP/GPRS konexio-parametroak betetzeko behar den informazioa.

11.2 Erabilgarri dauden aukerak

Aukeretara hiru modutara sar zaitezke,  ikonoa hautatuta (izenburuaren ezkerreko aldean) eta **OK** tekla sakatuta, edo **“Menua”** berretsita, edo  tekla sakatuta (luze sakatu) orri bat kontsultatzen ari zarenean.

Hasierako orria • Sartu zuzenean hasierako pantailara.

Markagailuak • Sartu gunee gogokoetara (liburu-markak)

Alertetara sarbidea • Bistaratu WAP bidez bidalitako informazioak.

Argazkiak • Gorde pantaila osoa.

Gorde • Gorde irudiak edo soinuak.

URLa bistaratu • Bistaratu orain zauden gunearen helbidea ⁽¹⁾.

URLra joan • Joan zuzenean WAP gunera helbidea sartuta.

Berriro kargatu • Kargatu berriro uneko orria.

Konfigurazioak • Pertsonalizatu WAP sarbidea.

Irten • Amaitu Interneteko zerbitzuen kontsulta eta itzuli lehen orrialdera.



Nabigazioaren edozein unetan, luze sakatu  tekla WAP modutik irteteko.

11.3 Sarbidea programatzea ⁽¹⁾

Profilen zerrendatik, aukeratu profil bat edo sakatu **OK** tekla aukera hauetan sartzeko.

⁽¹⁾ Telefono-modeloaren arabera.

Abiarazi	• Abiarazi WAP gunea, baita profilik aukeratu ez baduzu ere.
Aktibatu	• Sartu lehenetsitako profilaren parametroak eta itzuli profilen zerrendara.
Sortu	• Sortu profil berri bat.
Aldatu	• Aldatu profilaren parametroak ⁽²⁾ .
Ezabatu	• Ezabatu sortutako profila ⁽²⁾ .
Itzuli	• Itzuli aurreko pantailara
Irten	• Itzuli hasierako pantailara.

Profil bat sortzean edo aldatzean, transmisio-modu hauetako bat aukera dezakezu: **GPRS/GSM, GPRS** edo **GSM**. **GPRS/GSM** transmisio-modua aukeratzen baduzu, **GSM** modua aktibatu egiten da **GPRS** modua erabilgarri ez dagoenean.

Profil berria sortzeko, parametro hauek sartu behar dituzu nahitaez ⁽¹⁾:

- Profilaren izena
- Hasierako orria
- IP helbidea
- Segurtasuna
- Eramaila hautatu (GPRS/GSM, GPRS, GSM)
- PUSH parametroak
- Berretsi

GPRS transmisio-modua aukeratzen baduzu, parametro hauek sartu behar dituzu:

- Autentifikazioa ⁽²⁾ (erabiltzailearen izena eta pasahitza)
- APN ⁽¹⁾

⁽¹⁾ Sartu operadoreak emandako datuak.

⁽²⁾ Profil-motaren araberakoa da.

GSM transmisio-modua aukeratzen baduzu, parametro hauek sartu behar dituzu:

- GSM erabiltzaile-izena ⁽¹⁾
- GSM pasahitza ⁽¹⁾
- Telefono-zenbakia.
- Sarbide-mota
- Transmisio-abiadura

GPRS/GSM transmisio-modua aukeratzen baduzu, GPRS eta GSM parametroak sartu behar dituzu.

11.4 Zuzeneko sarbidea / Profil-sarbidea

Pertsonalizatzea/Doikuntzak/WAP/GPRS hautatuz gero, WAPen hasierako parametroak aldatzeko menura sartzen zara.

- **Zuzeneko sarbidea:** hasierako pantailatik WAP abiaraztean, zuzenean sar zaitezke lehenetsitako profilaren WAP gunearen hasierako orrira.
- **Profil-sarbidea:** hasierako pantailatik WAP abiaraztean, pantaila honetan sar zaitezke:



⁽¹⁾ Profil-motaren araberakoa da.

11.5 GPRS funtzioa

Zure telefono mugikorrak abiadura handiko modema du, GPRS teknologian oinarritutakoa (1); teknologia horrek WAPen bizkor nabigatzeko eta MMSak eraginkortasun gehiagorekin bidaltzeko aukera ematen du. MMSak zenbait modutara faktura daitezke (kontsultatu operadorearekin xehetasun gehiago izateko).

GPRS funtzioa bakarrik erabil daiteke:

- 1) zerbitzua zure hornitzaileak ematen badizu,
- 2) abonuan GPRS aukera sartzen bada,
- 3) profilak bete badira eta **PRS** edo **GPRS/GSM** transmisio-modua hautatu bada (ikus 66. orrialdea),

GPRS ingurunea aktibatzean,  ikonoa bistaritzen da.

(1) Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

12 Multimedia-bilduma



12.1 Bildumaren menua

Hasierako pantailatik multimedia-bildumara sartzeko, erabili ◀▶ nabigazio-tekla eskuinera edo ezkerrera. Bilduman, telefonoko ikusteko eta entzuteko elementu guztiak biltzen dira, bai sartutakoak, bai deskargatutakoak, bai gordetakoak baita konposatuak ere.

Funtzio honek bi menu ditu:

- irudiak, ikonoak, argazkiak eta abar dituen irudi-bilduma, eta
- soinuak eta doinuak dituen audio-albuma.

12.2 Nire irudiak

Irudi bat edo argazki bat aukeratu eta hasierako pantaila gisa edo pizteko/itzaltzeko pantaila gisa jar dezakezu, aldatu egin dezakezu, MMS bidez bidal dezakezu edo direktorioko kontaktu batekin lor dezakezu “**Lotu irudia**” aukerari esker (ikus 25. orrialdea).

Irudien bildumak karpeta hauek ditu:



Orokorra: Bildumako karpeta guztien irudi guztien zerrenda (sartutakoak edo sortutakoak).



Argazkiak ⁽¹⁾: telefonoak kamerarekin ateratako argazkiak jasotzeko aukeratutako karpeta lehenetsia.



Irudiak: beste karpetetakoak ez diren irudi guztiak ditu.



Ikonoak: EMSak, zigiluak eta abar ditu.



Markoak: irudiak apaintzeko markoak ditu.

⁽¹⁾ One Touch 735 modeloan bakarrik.

Errazago bilatzeko, pantailak irudien eta argazkien tamaina txikiko bista bistaratzen du. Irudi bat bistartzeko, aukeratu irudia, sakatu **OK** eta hautatu **“Kontsultatu”**.

Ondoren, ikuspegi horretatik, irudi batetik bestera mugi zaitezke  tekla erabilita (labur sakatu); luze sakatuta, diapositiben aurkezpena hasten da.

12.3 Nire soinuak

Doinu bat hauta dezakezu pizteko/itzaltzeko pantailarekin, sarrerako deiekin, mezuen jakinarazpenekin edo alarmekin lotzeko (ikus 41. orrialdea).

“Nire soinuak” Irudien bildumak karpeta⁽¹⁾ hauek ditu:



Orokorra (Bildumako karpeta guztietako elementu akustiko guztiak ditu, hasieratik daudenak edo sortutakoak),



Doinuak,



Soinu-efektuak,



Grabazioak (**“Grabatu”** funtzioarekin eta **“Memo=doinu”** funtzioarekin egindako grabazioak bakarrik),



Konposatuak (**“Konposatu”** funtzioarekin egindako konposizioak bakarrik ditu).



Irudiaren edo soinuaren artxiboaren izena bere izenaren lehen letra sakatuta bila dezakezu.

12.4 Irudien eta soinuen kudeaketa

Kasu batzuetan, aukera hauek daude:

⁽¹⁾ Karpeta horien izena ezin da aldatu. Hala ere, egoera batzuetan, karpeta horietan sartutako elementuak alda, ezaba, erants ditzakezu.

- Kontsultatu** • Bistaratu irudia (irudiak segundo bat baino gehiago behar badu, zain dagoela adierazten duen pantaila bistaratzen da).
- Entzun** • Entzun soinua.
- Bidali** • Bidali irudiak edo soinuak.
- Ezabatu** • Ezabatu hautatutako irudia edo soinua, telefonoan hasieratik zeudenak izan ezik.
- Deiak jasotzeko/ egiteko egoera** • Instalatu irudia hasierako pantailaren hondo gisa.
- Soinuak** • Aukeratu doinu bat sarrerako dei baten txirrin gisa.
- Aldatu** • Aldatu irudiak edo soinuak⁽¹⁾.
- Izen berria jarri** • Beste izen bat jarri irudiari edo soinuari.
- Sailkatu** • Sailkatu irudiak (markoak ez) edo soinuak (konposatutako doinuak izan ezik) nahi duzun ordenan. Sailkapena ordena alfabetikoaren arabera egiten da.
- Sortu karpeta** • Sortu irudiak edo soinuak multzokatzeko karpetak (adibidez, **“Oporrak”** edo **“Urtebetetze-eguna”**).
- Ezabatu karpeta** • Ezabatu eduki nahi ez duzun karpeta bat.
- Izen berria jarri** • Eman beste izen bat sortutako karpeta bati.
- Hustu karpeta** • Ezabatu karpetako edukia.
- Itzuli** • Itzuli aurreko pantailara
- Irten** • Itzuli hasierako pantailara.

12.5 Formatuak eta euskarriak

Telefonoak onartzen dituen audio- eta grafiko-formatuen zerrenda:

- Audioa: AMR, Midi, iMelody
- Grafikoa: JPEG⁽²⁾, GIF, PNG, BMP
- Tamaina handiko irudiak eta soinuak bihur ditzakezu, PCrako programen paketea erabilia, zure telefonorako bateragarriak izan daitezen.

⁽¹⁾ Ezabatzen diren doinu konposatueterako eta irudietarako bakarrik.

⁽²⁾ Jpeg progresiborako izan ezik, telefonoak “Jpeg Independent Group” kodea erabiltzen du.

13 Kamera (One Touch 735 modeloan bakarrik)

Telefonoak duen kamerarekin, une oro atera diezaiokezu paisaia bati, lagun bati, familiako bati eta abarri argazki bat. Argazkiak **“Multimedia-bilduma”**-n gorde ditzakezu. Bestalde, argazkiak honetarako ere erabil ditzakezu:

- lagunei multimedia mezu batean (MMS) bidaltzeko, beste mugikor batera edo posta elektronikoko helbide batera (ikus 36. orria).
- hasierako pantaila pertsonalizatzeko (ikus 43. orria),
- pizteko/itzaltzeko pantailak pertsonalizatzeko (ikus 45. orria),
- direktorioko zenbakiren batekin lotzeko (ikus 25. orria),
- zuk nahi bezala aldatzeko (marko bat ipini, zigiluak, klip txikiak sortu, etab. Ikus 78. orria),
- ordenagailura transferitzeko, Alcatelen PCrako programa-paketeari esker.

Funtzio horretara sartzeko, sakatu  tekla hasierako pantailan, eta gero, nabigazio-tekla erabiliz, hautatu **“Kamera”** edo zuzenean sakatu eskuineko funtzio-tekla. Hala, zuzenean sartuko da irudiak hartzeko pantailara.

13.1 Irudia hartzea

Telefonoak piztuta egon behar du argazkia ateratzeko. Pantailak bisore gisa balio du. Enkoadratu irudia edo paisaia eta sakatu  tekla edo jokoak martxan jartzeko tekla  . Kameraren objektiboa mugikorraren atzean dago, ez ipini hatzik horren gainean. Zure buruari argazkia atera nahi badiozu, objektiboaren ezkerrean irudia ongi fokatzeko ispilua dago.

Irudia eta soinua hartzea

Argazkia ateratzeko unean, zuzenean inguruko soinu bat eslei dakiok. Horretarako, irudia hartzean, luze sakatu  edo  teklak. Hala, azalduko den pantailarekin soinua graba dezakezu. Tekla sakatzeari uzten badiozu, grabazioa eten egingo da. Sakatu  tekla, irudiak hartzeko pantailara itzultzeko.

Irudia hartu ondoren, biratu egin dezakezu (zenbait formatutarako) ◀▶ tekla erabiliz, edo txikitu egin dezakezu ◀▶ tekla erabiliz.



Ez erabili kamera neurritz kanpo; errespetatu pertsona guztien bizitza eta indarrean dagoen tokiko araudia.

13.2 Doikuntzak

Argazkia atera baino lehen, hainbat gauza doi ditzakezu. Doikuntzetarako lasterbidea:

Hautatutako aukeren barra:

- std** argazkiaren kalitatea
- esposizio-modua
- irudia hartzeko modua
- 1** esposizioa (handiegia/txikiegia)
- 2/4** ateratako argazki-kopurua (animazioz eta mosaikoz)
- Atzeragailua

Kolorea aukera berresteko ezkerreko funtzio-tekla: (arrunta, zuria eta beltza, sepia-kolorea, negatiboa, inguratua)

Kalitatea:

- high** : handia - tekla
- std** : estandarra - tekla
- eco** : ekonomikoa - tekla

tekla **Argazkiak ateratzeko modua:**

- : sinplea
- : animazioa x 4
- : mosaikoa

Tekla

- Labur sakatuta: irudia hartzeko
- Luze sakatuta: irudia eta soinua hartzeko

Eskuineko funtzio-tekla: **Aukerak**

OK tekla:

- Labur sakatuta: irudia hartzeko
- Luze sakatuta: irudia + soinua hartzeko
- Esposizioa: Ezkerra: esposizio handiegia Eskuina: esposizio txikiegia
- Zooma: Gora: zooma handitu Behera: zooma txikitu

##B tekla. Irudiaren tamaina:

- Panoramikoa
- CIF
- L/M/S/XS

Doitzeko aukeretara sartu MENUtik: irudia hartzeko pantailan, sakatu eskuineko funtzio-tekla aukera hauetara sartzeko:

13.2.1 Irudiaren tamaina

Hautatu **“Irudiaren tamaina”** aukeren zerrendan edo sakatu behin eta berriz  tekla. CIF (352x288), Panoramikoa (352x128) optimizatuta PC batera bidaltzeko, L (128x128 pixel) telefonoan erabiltzeko edo MMS bat bidaltzeko, M (64x64) direktorioko erregistro batekin lotzeko, S (32x32), XS (16x16) zigiluak sortzeko (ikus 79. orria).

13.2.2 Argazkiak hartzeko modua

Hautatu **“Argazkiak hartzeko modua”** aukeren zerrendan, sakatu behin eta berriz  tekla, modu hauetako bat hautatzeko:

 **Sinplea:** argazki bakarra; lehenespenez dago aktibatuta modu hau.

 **Animazioa x 4:** modu honekin, 4 argazki atera daitezke eta bideoklip batean bezala kateatzen dira. Pantailaren eskuineko goiko aldeko zenbakiek zein argazki ikusten ari zaren adierazten dizute: 1/4, 2/4,4/4. Laugarren argazkia atera ondoren, animazioa automatikoki exekutatu da.

 **Mosaikoa:** modu honekin, 4 argazki txikiz osatutako irudi bat lor dezakezu. Horretarako, **“Mosaikoa”** aukera hautatu ondoren, segitu animazioaren urratsei (ikus aurreko paragrafoa).

13.2.3 Markoa

Hautatu zerrendako marko bat eta sakatu  tekla: markoa hartu beharreko irudiaren gainean jartzen da. Irudia atsegin baduzu, sakatu  tekla, argazkia ateratzeko. Aukera hau **“Aldatu”** funtzioan ere badago (ikus 78. orria).

13.2.4 Kalitatea

Hautatu **“Kalitatea”** aukeren zerrendan edo sakatu  ,  ,  teklak, zuzenean hauetara sartzeko:

eco kalitate merkea: memoriarentzat onena

std kalitate estandarra: tamaina eta kalitatearen arteko oreka

high kalitate handia: kalitate bikaina, PC batera bidaltzeko.



KONTUZ: kalitate handiak memoria gehiago behar du. Adibidez, 1 megabyteko memoria librea badu, irudi-kopuru hau izan dezakezu:

Adibidez:

Irudiaren tamaina	Kalitate handia	Kalitate merkea
CIF	30 argazki*	75 argazki*
128 x 128	190 argazki*	+300 argazki*

13.2.5 Atzeragailua

OK tekla sakatuta, 10 segundo igarotakoan aterako du argazkia. Argazkia atera baino lehentxeago soinua egiten du (telefonoa Soinua moduan badago).

13.2.6 Argitasuna

“Aukerak” funtzio-tekla sakatzen baduzu, 5 doikuntza hauta ditzakezu gehienez:

Auto: automatikoki doitzen da (ez da ikonorik azalduko pantailan),

 eguzkitsua

 lainotuta

 gaua

 barnealdean/argi artifiziala.

* Kalkulu hauek ez dira erabat zehatzak.

13.2.7 Kolorea

5 kolore-efektu hauta ditzakezu: kolorea, zuria eta beltza, sepia-kolorea, negatiboa, inguratua. Aukera hauek zuzenean bistara ditzakezu, irudia hartzeko pantailatik; horretarako, sakatu ezkerreko funtzio-tekla.

13.2.8 Bildumara sartzea

Aukera honekin zuzenean sar zaitezke **“Bilduma/Irudiak”** menura.

13.2.9 Lehenetsitako karpeta

Lehenespenez beste karpeta bat hauta dezakezu atara dituzun argazkiak gordetzeko.



Karpetak sor ditzakezu **“Bilduma/Irudiak”** funtzioarekin (ikus 69. orria).

13.2.10 Argazkiak ateratzeko pantailan dauden beste aukeren lasterbideak

Esposizioa: doitu argazkiaren kontrastea, nabigazio-teklarekin: ezkerra = esposizio handiegia, eskuina = esposizio txikiegia.

Zooma: aktibatu zooma, gora/behera nabigazio-teklarekin: gora, zooma handitzeko; behera, zooma txikitzeko. Luze sakatzen baduzu, zooma pixkanaka aldatuko da (aukera honek ez du balio CIF eta Panoramikoa tamainetarako).

Modu horizontala: atara argazkiak **“Modu bertikala”** edo **“Modu horizontala”** moduekin: argazkia bidali baino lehen, bira dezakezu nabigazio-tekla erabiliz (ikus 77. orria).

13.3 Irudia hartu ondoren dauden aukerak

Irudi edo animazio bat hartu ondoren, aukera hauetara sar zaitezke: ezkerrera **“Gorde”**, eskuinera **“Menua”**. Sakatu eskuineko funtzio-tekla aukera hauetara sartzeko:

Bidali • Bidali argazkia MMS bidez zuzenean, Bilduman gorde gabe.

Gorde eta bidali • Gorde argazkia eta bidali MMS bidez.

Gorde • Gorde argazkia.

Ezabatu • Oraintxe atera duzun argazkia kendu.

Aldatu • Argazkia txikitu, zigiluak, markoak jarri.

Soinua lotu • Grabatu soinu bat eta lotu argazkiari.

Bildumara sartu • Sartu zuzenean Irudi-bildumara.

Biratu • 90°-ko biraketak egin.

=>Hasierako pantaila • Hautatutako argazkia hasierako pantaila gisa instalatu.

14 Irudiak aldatzea.....

Aukera honekin, irudien tamaina txikitu, eta zigiluak edo markoak gehi ditzakezu. Irudiak hartu eta aldatzeko bi modu daude:

- **“Bilduma”** menutik:
Hautatu irudi bat, sakatu **OK** tekla eta hautatu **“Aldatu”**.
- **“Kamera”** menutik ⁽¹⁾:
Irudia hartu ondoren, sakatu eskuineko funtzio-tekla **“Menua”**-n sartzeko, eta hautatu **“Aldatu”**.

Bi modu horietatik, hurrengo 3 funtzioetara sar zaitezke: txikitu, zigilua gehitu, markoa gehitu.

Txikitu: Funtzio honekin zure beharretara egokitutako formatua hautatu, irudi bat dekoratzeko zigilu gisa erabili edo fitxategi-tamaina minimoa (adibidez: MMS bidez bidaltzea) lor ditzakezu. Ezin da funtzio hau erabili irudiaren aldeek 32 pixel baino gutxiago neurtzen badute eta ezabatzen ez den irudia bada. **“Txikitu”** hautatu ondoren, sakatu **OK** tekla eta pantaila hauek azalduko dira:



Palomba/Agenceimages.com ⁽²⁾


⁽¹⁾ One Touch 735 modeloan bakarrik.

⁽²⁾ Kamera honetako multimedia edukia (melodiak, irudiak, marrazkiak, etab.) era pribatuan soilik erabili behar dira. Ezin dira inolaz ere merkaturatu. Legez kanpoko erabilera guztiak gaitzesgarriak dira eta **prozesu judizialak** eragin diezazkioke egileari.

Zigiluak: Funtzio honekin, irudiak modu alai batean apain ditzakezu. **“Zigilua gehitu”** aukeraren bidez, sakatu **tekla**, eta pantaila hauek azalduko dira:



Erabili nabigazio-
tekla zigilu bat
hautatzeko



Zigilua pantailaren
erdian jartzen da





Zigilua mugitu
egingo da,
nabigazio-tekla
sakatzen den
bakoitzean



Zuk ere zigiluak sor ditzakezu Alcatelen PC programa-paketeari eta kamerari esker (ikus 74. orria) (One Touch 735 modeloan bakarrik).

Markoa: Funtzio honekin markoak jar ditzakezu argazkien inguruan. Markoen formatua 128x128 pizelekoa da; beraz, markoa ipini nahi diezun irudiak, formatu hori baino txikiagoak izan behar dira.



Zigiluak eta markoak aldatu nahi badituzu, gogoratu argazkiak behar duen muga-formaturik ez badu, txiki dezakezula.

15 Jokoak.....

15.1 Jokoen menua

“**Jokoak**” menura sartzeko, erabili Jokoak  sarbide-tekla luze sakatuz, edo Menutik, sakatu **OK** tekla eta hautatu “**Jokoak**” aukera.

Aukera hauek hauta ditzakezu:

- *yyy ⁽¹⁾ Erositakoan telefonoak zituen jokoetara sartzeko.
- Katalogoa ⁽²⁾ Sartu deskarga ditzakezun joko berrien katalogora ⁽¹⁾. Kotsultatu jokoen zerbitzuko tarifei buruzko informazioa ⁽²⁾.
- Berriak Kotsultatu jokoei buruzko azken berriak.
- Jarraibideak Deskarga daitezkeen jokoen zerbitzuari buruzko informazioa.
- Doikuntzak Konfiguratu joko guztiei aplikatzen zaizkien parametroak (ezizena, soinuaren eta argiaren erabilera).

15.2 Nabigazioa


Jokoetan eta katalogoan, teklak honela erabiltzen dira:  gora,  behera,  ezkerrera,  eskuinera, **OK** .

⁽¹⁾ Telefonoaren arabera aldatuko dira joko-kopurua eta -motak.

⁽²⁾ Operadorearen eta herrialdearen arabera erabilgarritasuna.



Erosoago izan dadin, gomendatzen dizugu telefonoa horizontalki jartzea eta nabigazio-tekla eta jokoak martxan jartzeko tekla erabiltzea.



15.3 Joko bat deskargatzea ⁽¹⁾

“Jokoak” menuetik, hautatu **“Katalogoa”** aukera. SMS bidez erregistratu behar da lehen aldiz (SMS arrunt baten prezioa). Beraz, **“Jokoak”**-era berriz konektatzean, **“Katalogoa”**-n deskarga daitezkeen azken jokoen zerrenda izango duzu. Hautatu bat eta berretsi **“Deskargatu nahi duzu?”** aukera. Deskargatzen amaitu ondoren, jokoak automatikoki abiatuko da eta gero **“Jokoak”** menuan azalduko da.

Aldi berean, deskargatutako joko bat baino ezin duzu izan. Erosterakoan, telefonoak jokoak baditu. Zerrendako lehen jokoak ezabatu egiten da, joko berri bat deskargatzen duzunean.



Kontuz: Ekintza batzuetarako SMS bat bidali behar da (katalogoa, puntuazio onenak bidaltzea, etab.).

⁽¹⁾ Operadorearen eta herrialdearen arabera erabil daiteke zerbitzua.

Zure mugikorreko zerbitzu aurreratuak

16 Zure mugikorreko zerbitzu aurreratuak

16.1 Alcatelen “My One Touch” zerbitzuak

“My One Touch”-en zure telefono mugikorrak izugarri gozatzeko zerbitzuak eskura ditzakezu.

Sartu **www.my-onetouch.com** orrian edo hautatu telefono mugikorreko “My One Touch” aukera; horretarako, hautatu menu orokorreko “Zerbitzuak” edo “Pertsonalizatu/Txirrinak” edo “Irudiak/Deskargatu”.

16.2 Alcatelen PCrako programen paketea

Telefonoaren modeloaren arabera, PCrako programa-pakete bat izan dezake. Bestela, doan deskarga dezakezu “My One Touch” web orritik. Programa-paketean hauek sartzen dira:

- multimedia-azterketa: pertsonalizatu telefono mugikorra, soinuekin, melodiekin, ... irudiekin eta animazioekin
- transferitu PCra mugikorrarekin ateratako argazkiak (One Touch 735 modeloan .. bakarrik).
- Intellisync: sinkronizatu telefono mugikorra hauekin:
 - MS Outlook 97 / 98 / 2000 / 2002
 - Outlook Express 5.0 / 6.0
 - Lotus Notes 4.6 / 5.0 / 6.0
 - Lotus Organiser 5.0
- Data Connection Wizard: erabili telefonoa PCa Internetera konektatzeko.

Sistema eragile bateragarriak

- Windows 98 2. edizioa, DirectX 8.0 edo berriagoarekin
- Windows Me
- Windows 2000, Service Pack 3 (SP3) edo berriagoarekin
- Windows XP, Service Pack I (SPI) edo berriagoarekin




Ordenagailuaren eta telefono mugikorraren arteko komunikazioa lotura infragorriaren bidez egiten da. Ordenagailuak ataka infragorririk ez badu, PCrako konexio-osagaia eros dezakezu (ikus 90. orria).

17 Karaktereen eta ikurren taula

Modu arruntean hitz bat sartzeko, sakatu letra horri dagokion tekla behin eta berriz pantailan agertu arte.

	1	2	3	4	5	6	7	8
	└	1	_					
	A	B	C	2	Ä	Å	Æ	ç
	D	E	F	3	É	Δ	Φ	
	G	H	I	4	Γ			
	J	K	L	5	Λ			
	M	N	O	6	Ñ	Ø	Ö	Ω
	P	Q	R	S	7	β	Π	Σ
	T	U	V	8	ü	Θ		
	W	X	Y	Z	9	Ξ	Ψ	
	+	0	.					
	Ikurren taula bistaratzen da.							
	⇧AbI, ⇧ABI, ⇧abI, 12 (ikus 38. or.)							

Ikurren taula bistartzeko, sakatu tekla. Kurtsorea erdian azaltzen da; erabili tekla hau:



18 Bermea.....

Zorionak eman nahi dizkizugu telefono hau hautatzeagatik, eta egindako aukerarekin gustura egotea espero dugu.

Zure aldeko legezko bermeaz gain, telefono honek eta bere osagarriek urtebeteko (1) bermea dute edozein fabrikazio-akats izanez gero –fakturan agertzen den erosketa-egunetik hasita–, baterien akatsengatik izan ezik. Kasu horretan, bermea (6) hilabetekoa da. Dena den, zure herrialdean indarrean dagoen bermea urtebete (1) baino gehiagokoa bada, fabrikatzailearen berme honek ez du eraginik izango.

Berme honen arabera, izandako akats guztien berri eman behar diozu saltzaileari (edo Alcatel-en mantentze-lanetarako zentro teknikoari; horien zerrenda web gunean dator: www.alcatel.es) atzerapenik gabe, eta bermearen ziurtagiria behar bezala beteta eta/edo erosketaren faktura erakutsi behar diozu. Hor datu hauek argi eta garbi adieraziko dira: izena, modelo, IMEI zenbakia, data eta saltzailea.

Alcatel-ek eskubide osoa du bere irizpidearen arabera erabakitzeko materiala ordeztu edo konpondu egingo duen, kasuaren arabera, material osoa eta zati akastuna. Berme honek piezen gastuak eta eskulan-gastuak soilik estaliko ditu. Konponketa eta ordezte berreskuratutako unitateekin egin ahal izango da, unitate horien funtzionamendua produktu berri batena bezalakoa bada, betiere.

Berme honen arabera egindako konponketek ez dute ez luzatzen ez eteten berme horren iraupena, inola ere.

Berme hau ez da aplikatuko arrazoi hauengatik sortutako akats edo kalteengatik:

- 1) erabiltzeko edo instalatzeko argibideak ez betetzea,
- 2) erabiltzailearen eremu geografikoan indarrean dauden arau teknikoak eta segurtasun-arauak ez betetzea,
- 3) energia-iturriak eta instalazio elektriko orokorra behar bezala ez zaintzea
- 4) mugikorra dagoen ibilgailuak istripua izan badu eta lapurreta egin badute, baita bandalismoa, kolpeak, erorketak, erabilera txarra, tximistak, suteak, hezetasuna, korrosioa, likidoak sartzea edo babesik ez izatea ere,
- 5) Alcatel-ek emandakoak ez diren edo gomendatzen ez dituen ekipoetan sartzea materiala, baldin eta idatziz adostuta ez badago,

- 6) aldagetak egitea, produktua irekitzea edo Alcatel-ek baimendutakoak ez diren pertsonek edo baimendu gabeko mantentze-lanen zentroek egindako konponketak
- 7) materiala fabrikatutako helbururako ez beste helburu baterako erabiltzea,
- 8) ohiko higadura,
- 9) kanpoko elementuek eragindako funtzionamendu okerra (adibidez: beste ekipo batzuk eragindako perturbazioak, korrante elektrikoaren tentsioaren eta/edo telefono-lineen aldagetak).
- 10) materialean egindako aldagetak edo egokitzapenak, nahiz eta derrigorrezkoak izan, araudia aldatu delako,
- 11) sarearen parametroak aldatzearen ondorioz produktuaren softwarea eguneratzea,
- 12) Alcatel-ek produktuetan eguneratzeak egiteko eskubidea du. Ez dago beharturik lehendik saldutako produktuetan aldaketa horiek egitera eta ezingo dira arrazoi horrengatik produktuak itzuli.
- 13) hedapen txarrarengatik sortutako konexio-akatsak edo irrati-erreleen estaldura faltagatik sortutakoak.

Berme honetatik kanpo geratzen dira kendu edo aldatu diren markak eta serie-zenbakiak dituzten telefonoak edo osagarriak, baita etiketa askatuta edo hondatuta duten telefonoak ere.

Arestian zehaztutako xedapenek soilik osatzen dute fabrikatzailearen aurka aurkezteko errekurtsio bakarra telefono edo osagarriak akatsen bat dutenean; berme honek beste berme esplizitu edo inplizitu oro baztertzeko ditu, erabiltzailearen herrialdean indarrean dagoen legeko bermea izan ezik.

Ekipo honen bermea izateko, ezinbestekoa da dokumentu hau behar bezala beteta aurkezte.

BERME-ZIURTAGIRIA

Modeloa:.....

Izena:.....

IMEI zenbakia:.....

Erosketa-data:

Saltzailearen zigilua eta sinadura:


Ekipo honen bermea izateko,
ezinbestekoa da dokumentu hau behar
bezala beteta aurkezte.




Baldin eta frogatzen bada egindako aldagetak egokiak ez direla, eta 3 hilabeteren barruan akatsak berriro nabarmenak badira, ekipo akastunaren orde ezaggarri berdinak dituen ekipo berri bat eman diezazuten eska dezakezu edo, bestela, dirua itzul diezazuten.

19 Osagarriak ⁽¹⁾


Alcatel-en GSM telefono mugikorren azken belaunaldiak “esku libreko funtzioa” du barnean, telefonoa distantzia jakin batetik erabili ahal izateko, adibidez, mahai baten gainean dagoenean. Elkarrizketak isilpekoak izatea nahi baduzu, entzungailu bat erabil dezakezu: esku libreko ekipo eramangarria.




Bateria B60



Bidaletarako
kargagailua C57



Ibilgailuko
pizgailurako
kargagailua C56




Esku libreko ekipo
eramangarria M13




Zorroa HC31



Ibilgailuetarako
oinarrizko kita MP79



Full duplex MP87
esku libreko gailua




A3 antena-kita
(MP87rako)



Zure telefonoarekin bateragarriak diren Alcatelen bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili behar dituzu.


⁽¹⁾ Baliabideen arabera



PC Software Suite
(USB konexioa)
TD10



Teklatua KBI



M16 esku libreko
ekipo eramangarri
funtzionala

20 Arazoak eta irtenbideak.....

Laguntza teknikoko zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, puntu hauek egiaztatzea gomendatzen dizugu:

Telefono mugikorra ez da pizten

- Sakatu  tekla pantaila piztu arte
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu bateriaren kontaktuak, atera eta sartu berriz bateria, eta piztu berriz telefonoa

Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Sakatu  tekla.
- Kendu bateria, eta gero, sartu berriz eta piztu telefonoa

Pantaila ez da argi ikusten

- Garbitu pantaila
- Egiaztatu kontrastea
- Aktibatu argia
- Erabili telefono mugikorra gomendatutako erabilera-kondizioetan

Mugikorraren pantailaren argia ez da itzaltzen

- Sakatu luze  tekla.

Mugikorra bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu telefonoa erabiltzen ez duzunean teklatura blokeatuta dagoela
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu pantailaren argia ez dagoela etengabe aktibatuta

Telefonoak dar-dar egiten du deirik ez jaso arren

- Telefonoak dar-dar egin dezake kolpe bat hartzen badu edo behin eta berriz telefonoaren atzeko aldean kolpatzen bada (Hi-Fi mintz bat dago bozgorailuan, ikus 18. orria)

Mugikorra ez da behar bezala kargatzen

- Egiaztatu bateria ez dagoela erabat deskargatuta, kargaren irudiak hainbat minutu behar ditu eta gero txistu fin bat egin dezake
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (- 10 °C + 40 °C bitartean)
- Egiaztatu nola sartzen den bateria: bateria kargagailua konektatu baino lehen sartu behar da
- Egiaztatu ALCATELen kargagailua eta bateria erabiltzen ari zarela
- Atzerrian, egiaztatu korrante-hartuneen bateragarritasuna

Telefono mugikorra ez dago sare batera konektatuta

- Begiratu telefono mugikorrak beste sareren bat aurkitzen duen beste toki batean
- Egiaztatu sarearen estaldura operadorearekin
- Egiaztatu SIM txartelaren baliozkotasuna operadorearekin
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k) (ikus 50. orria)
- Saiatu berriz, gero, sareak gainkarga baldin badu

SIM txartelaren errorea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela (ikus 13. orrialdea).
- Galdetu operadoreari zure SIM txartela bateragarria den 3V-rekin, lehengo 5V-eko SIM txartelak ezin baitaitezke erabili.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta dagoen

Ezin da deirik egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta sakatu  tekla.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdeko/eremukodeak
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela
- Egiaztatu ordainketa operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna)
- Egiaztatu ez duzula irteerako deirik debekatu (ikus 48. orria)

Ezin da deirik jaso

- Egiaztatu telefono mugikorra piztuta dagoela eta sare bati konektatuta dagoela (sareak gainkarga du, ezin da erabili)
- Egiaztatu ordainketa operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna)
- Egiaztatu ez duzula irteerako deirik desbideratu (ikus 49. orria)
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu

Solaskidearen izena ez da azaltzen deia jasotzean

- Egiaztatu operadoreak zerbitzu hori eskaintzen dizula
- Solaskideak ez du bere zenbakia transmititzen

Deien audio-kalitatea ez da onena

- Deia egitean, bolumena  teklaren bidez doi dezakezu.
- Kontrolatu  sareko seinalearen ikonoa

Ezin ditut eskuliburuan azaltzen diren funtzioak erabili

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela ALCATELen osagarriren bat behar

Ezin dut direktorioko zenbakirik markatu

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula

Ezin dut erregistrorik sortu direktorioan

- Egiaztatu SIM txartelaren direktorioa ez dagoela beteta, kendu fitxak edo gorde fitxak telefonoaren direktorioetan (profesionala, pertsonala).
- Egiaztatu **“Exc.Dir.”** funtzioa ez dagoela aktibatuta **“Sarr.deiak”** ataleko **“Debekatuta”** aukeran

Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Ezin naiz ahots-postontzira sartu

- Egiaztatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia **“Nire zenbakiak”** atalean gordeta dagoela
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta badago

Ezin du mezurik (MMS,Vox MMS) bidali ezta jaso ere

- Egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela; beteta egon daiteke (ikus 61. orria)
- Egiaztatu operadorearekin zerbitzu hau erabil dezakezula (ikus parametroak 66. orrian)
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua
- Saiatu berriz gero, SMS zentroa beteta egon liteke
- Agian hartzailearen telefonoa ez da bateragarria bidalketa-sistema honekin

ikonoa hasierako pantailan agertzen da

- Mezu gehiegi gorde dituzu SIM txartelaren memorian: kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian

<<—>> ikonoa agertzen da

- Sarearen estaldura-eremutik kanpo zaude

Okerreko 3 PIN kode sartu ditut

- Jarri harremanetan operadorearekin desblokeatzeko PUK kodea lortzeko

Deskargatutako jokia ez da ageri

- Egiaztatu jokia deskargatzeko SIM txartel bera erabili duzula.

Telefonoari ezin diot ordenagailua konektatu

- Lehenik, instalatu Alcatelen PCrako programen paketea
- Hautatu “Konexioaren instalazioa” konexioa instalatzeko
- Infragorrien funtzioa erabiltzen baduzu, egiaztatu aktibatuta dagoela (ikus 62. orria)
- USB datu-kablea erabiltzen baduzu, egiaztatu konexioa instalatzeko erabilitako USB atakan konektatuta dagoela
- Egiaztatu ordenagailuak Alcatelen PCrako programen paketea instalatzeko behar diren zehaztapen guztiak betetzen dituela

Oharrak:

© ALCATEL BUSINESS SYSTEMS 2003.

Debekatuta kopiazea. Alcatel-ek bere ekipoen ezaugarriak aurrez jakinarazi gabe aldatzeko eskubidea du.



mœvil

